



HEMEN ELKARTEA

Lankidetzan Hemen elkartearekin.



Baiona-Donostia euskal euro hiria eta bere eragin- eremuko gazteen txertatzea Iparraldeko lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea

**Gaindegia
Behategia**

L.G.: SS-145-2008

urtarrila 2008

Lan koadernoa/Cuaderno de trabajos/Cahier de travaux

3

Sustatzaileak

- Hemen elkartea
- Gaindegia

Zuzendariak:

- Solange Mariluz
- Anton Borja

Lan taldea


- Mirentxu Arbeletxe
- Xan Anton Durruty
- Arantxa Idieder
- Eulatz Zufiaurre





Aurkibidea

Hitzaurrea	7
I. - Problematika.....	9
II. Ikerketaren helburuak:	15
III. Metodologia:	17
IV. Lan taldea	25
V. Lan prozedura	27
VI. Analisia:	29
VII. Ondorioak:	49
VIII. Eranskinak	55






Baiona-Donostia euskal euro hiria
eta bere eragin-eremuko gazteen
txertatzea Iparraldeko lan merkatuan.

Formakuntza eta lan ibilbidea.

2007ko azaroa



Hitzaurrea

Txosten honek, euro-hiria osatzen duten Lapurdiko udalerrietako gazteek heziketaz, lana bilatzeaz edo lan eskaintzaz bizi izan dituzten esperientziak eta iritziak jaso eta aztertzen ditu.

Honen bitartez Baiona-Donostia euro-hiriko lan merkatuaren azterketa estatistikoa osatu nahi dugu, besteak beste inguru geografiko horri buruz dagoen informazio hutsunea osatzeko.

Ikerketa honetan kontuan hartu dugu Lapurdiko kostaldea eta honen eragin eremua. Horregatik kostaldeko gazteekin batera barnealdekoak ere elkarriketatu ditugu.

Orotara 18 eta 29 urte bitarteko 61 gazteren lekukotasunak jaso eta azertu ditugu. Metodologia kualitatiboa jarraituz egin dugu lana. Honen arrazoia teknikoa da, ia ezinezkoa baita erakunde publikoa ez den batentzat inkesta baterako behar diren datu pertsonalak eskuratzea. Honela, Garapen Kontseiluak “*Chantier Jeunes*” atalean gazteen iritziak ezagutzeko egin bezala, geuk ere metodologia kuantitatiboaren aldeko hautua egin dugu.

Euro-hiriaren baitan dauden Gipuzkoako udalerriekin ez dugu lan bera egin gaiari buruz nahikoa informazio kuantitatibo eta kualitatibo badagoelakoan. Horretarako aski da Eustat eta Eusko Jaurlaritzak maiztasunez argitaratzen dituzten serie estatistikoak, inkestak eta azterketa txostenak hartzea.

Txostenak bost atal nagusi ditu. Hasieran gaia edo problematika aurkezten du, segidan jarraitutako metodologiaren inguruko azalpenak ematen ditu. Hirugarren atalak jasotako informazioaren analisia egiten du. Azken aurrekoan ondorioak ematen ditugu eta amaieran informazioa osatzera datozen eranskinak.



I. Problematika:

2001eko Euskal Herriko soziolinguistika inkestaren¹ arabera, Lapurdi Euskal Herritik kanpo sortutakoak biztanleen erdia baino gehiago (%52) dira, aldiz bertan sortutakoak eta bertakoen seme alabak direnak ez dira herena izatera iristen (%31). Gipuzkoan, aldiz %22 dira Euskal Herritik kanpoko lurraldeetan sortutako herritarrak.

Baiona eta Lapurdi kostaldea zein bere eraginpean dauden herrietako datuak elkartzen baditugu oharitzen gara etorkin gehienek 15 urte baino gehiago dutela. INSEE-k ematen duen zentsuetako informazioa aztertuz ikusten da, halaber, Iparraldera 80.000 pertsona inguru etorri zirela bizitzera 1982 eta 1999 bitartean. Iparraldeak azken 45 urte hauetan migrazio saldo positiboak izan ditu aztertutako epealdi guztietan. Lapurdi da aztertutako aldiari joerarik argiena duena: migrazio saldo positibo handiak izan ditu 1962-2005 epealdi osoan, 1982-1999 bitartean bereziki.

Bestalde, 1982 eta 1999 bitartean Iparraldetik Paris, Bordele edo Frantziako beste gune garrantzitsuetara lan egiteko adinean joandakoak 47.000 izan ziren.

Ondorioz, Frantziako zentsuaren arabera, 1982 eta 1999 bitartean 80.000 pertsona etorri ziren, eta, 47.000 joan. Garapen Kontseiluak *Pays Basque 2020* prozesuaren barruan egin lanek utzi duten ondorioen artean dago gaur egun Batxilergoa amaitzen duten Iparraldeko gazteen artean %61-ak bere sorterrira uzten duela goi ikasketak beste nonbait egiteko 2004 urtean 1.896 ikasle izan ziren batxilergoa egindakoak². Beraz, 1.156-k Euskal Herritik kanpo jarraitu zituzten beren ikasketak. Oro har, 5.000 eta 7.000 bitartean dira une honetan, Iparraldetik kanpo goi ikasketak egiten ari diren ikasleak, goi mailako ikasketen aldiak 5 urte inguru irauten duela ondorioztatzen badugu.

¹ Iturria: Eusko Jaurlaritzak Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta, 2001.

² Iturria: Garapen Kontseilua. «La formation et l'insertion professionnelle des jeunes en Pays Basque». www.lurraldea.net

Baina desplazamendu hauek esplikatzeko aurreiritzietatik ihes egin beharra dago eta zorrotz aztertu zer gertatzen den hemengo lan merkatuan.

Usu uste dugu gazteak joaten direla lanik ez delako eta kanpotik heldu direnak erretreta hartutakoak direla. Datuek ordea, ez dute horrelakorik frogatzen. Aitzitik, bataz beste, Frantziako zentsuak aztertuz Iparraldera datozen etorkin hauek, lehenagotik bertan bizi zirenak baino gazteagoak dira. Etorritakoen artean, gehiago dira 40 urte bitarteko adin tartetako herritarrek (25-39 eta 0-14 adin tartekoak bereziki) eta gutxiago dira gainerakoak. Kontraesan horrek du beraz, gure interesa piztu. 1990-99ko erroldari esker ohartzen gara 19 eta 24 urte bitartean diren gazteen %19,4 sorlekutik kanpora joaten dela. Adin tarte hori ikasle nahiz langile berriz osatua da, proportzioak abantzu erdi-erdi banatzen dute populazioa bi kategoria horien artean (%50 ikasle eta %50 langile).

I.a.- Ikasketak :

Azter ditzagun eskolatzea, gazteen diplomak, eta hautatzen dituzten ikasketak.

Iparraldeko eskolarizazioaren argazkia:

1999an INSEE-k bildu dituen datuen arabera, 1990 eta 1999 artean, Iparraldean, Frantzia mailan bezala, eskolatzeko maila argiki goratu da.

16-18 urtekoak kasik %100 eskolatuak dira. 19-25 urtekoak guti gora behera %50 dira eskolatuak. 25 urte eta gehiago dutenen eskolatzeko maila 5 aldiz goratu zen 1990 eta 1999 artean (1990an 0,30 zelarik, 1999an 1,20 izan zen) nahiz eta beti maila apalean dagoen.

Diplomak:

Ikasketak amaitu dituzten 15-29 urte artekoek duten diploma gorena:

Ikasketa maila	Kopurua	Ehunekoak
Baxoa baino apalagoa	13 302	53,1
Baxoa edo BEP	5 515	22,0
Baxoa +2	4 231	16,9
Baxoa +3	2 002	8,0

Jatorria: INSEE, 1999.

1999an, INSEE-k bildu dituen datuen arabera Iparraldean 15-29 urteko gazteetan diplomatu kopurua nahiko apala da, eta diplomatu gehienek batxilergoa baino maila apalagoko diplomak dituzte.

Ikasketak utzi dituzten gazteen artean erdiak batxilergoa baino maila apalagoko diploma badu.

Gazte aktiboetan, 15-24 urte artean %44 dira BEP edo CAP diploma dutenak, Frantzia mailan %32 direlarik. %17 bakarrik dira Baxoa+2 urteko maila dutenak eta %8 dira Baxoa+3 baino maila handiagoko diploma dutenak, Frantzia mailan %10 direlarik.

Frantziarekin konparatuz Iparraldean baxoa baino maila apalagoa duten, edo diplomarik ez dutenak gehiago dira.

Iparraldean CAP-BEP da diplomarik zabalduena, 15-29 urte dituztenen artean, %23,4.

Iparraldeko gazteen ibilbide hautua:

Ikasleen Behatokiak bildu dituen datuen arabera, 2003ko batxilergoko ikasleen artean % 61 ziren eskualdetik joan zirenak goi mailako ikasketak segitzeko.

Aldiz, BTS formakuntza segitu nahi zutenen % 72,4 a eskualdean bertan gelditu zen.

Ohartzen gara, beraz, formakuntza eskualdean proposatua delarik gazte gehienek bertan egoteko hautua egiten dutela.

Batxilergo orokorra segitu zutenen %69ak unibertsitatearen hautua egin zuen. Hauen artean lautik hiruk ikasketak eskualdetik kanpo segitzeko hautua egin zuen.

% 9,5 ziren BTS edo CPGE (Classe Préparatoire aux Grandes Ecoles) formakuntzen hautua egindakoak eta hor ere gehienak eskualdetik at joan ziren. Jakinez eskualdean bakarrik hiru hautu zituztela mugitzea beharrezkoa izan zaie.

Batxilergo teknologikoa lortu duten gehienek ibilbide laburrenaren hautua egin dute, BTS modukoak, horretarako gehiengo batek eskualdean proposatuak diren formakuntzen hautua egin du.

Suposatzen ahal genuke horrek ez duela erran nahi Iparraldean gazte gutxi egin nahi dituela goi mailako ikasketak, baizik eta hemen eskaintzen diren formakuntzak horri dedikatuak direla (ikus 1 eranskina). Beraz, ikasketa luzeak egiten dituzten gazte gehienek kanpora joan behar dute.

I.B. Lana:

Ikus dezagun gazteen lanbideak zein diren:

15-49 urte bitarteko ofizioa:

	15-29	30-49
1. Laborari	2,6%	4,5%
2. Ofiziale, saltzaile, enpresaburu	3,7%	9,2%
3. Kuadro, «Profession intellectuelle supérieur»	3,8%	9,6%
4. «Profession intermédiaire»	18,2%	20,7%
5. Langile-enplegatu	39,0%	32,4%
6. Langile	32,8%	23,5%

Jatorria: INSEE, 1999.

Lanari doakionez, 1999an INSEE-k bildu zituen datuen arabera, 15-29 urte Bitartean lan egiten dutenen %39 « langile enplegatuak » dira, eta %32,8 « langileak », « Kuadro profesionalak » aldiz %3,8, laborariak %2,6, eta %3,7 « ofiziale-merkatari-enpresaburu ».

Beraz, Iparraldean lan egiten duten 15-29 urte bitarteko gazteen artean gehienak langile soilak dira. Orokorki aktibo gehienak multzo honetakoak dira. Baina 15-29 urte artean proportzioa (%71,8), 30-49 urte artekoena baino azkarragoa da (%55,9).

Ikasle munduari doakion ber hipotesia egin genezake hemen ere:

Gazteak Iparraldetik kanpo joan direla beren lan proiektuak gauzatzeko.

Horren irudikatzeko aktibitate ekonomikoen argazki bat egitea aski da. Izan ere, Iparraldeko aktibitate ekonomikoa jarduera oso zehatzetara lotua da (turismoa, merkataritza, osasuna, eraikuntza eta laborantza).

Horren islatzeko ondorengo atalean (Lana) gune geografiko zabalago bat hartuko dugu lehenik (Akitania) Iparraldeari buruz ez baitugu daturik.

I.C.- Lan mundua:

INSEE-k egindako 2006ko erroldak agerian uzten du zerbitzuen arloa dela garatuena Akitanian. 77.222 enpresa horri dedikatuak dira, eta hau, Frantziako 29 eskualdetatik bost gorenaren artean dago. Komertzioa da ondotik enpresa gehien kontatzen dituen arloa. Lantegi gehienak langile bakarrek dira (88.563) eta 43k bakarrik dute 500 langile baino gehiago. Hala ere, langile anitz badira Akitanian, 1.059,2 mila hain zuzen ere. Langile ez direnak aldiz, 136,3 mila bakarrik dira. Horrek erran nahi du jende guti ari dela bere kontura, gehienak norbaiten lantegi batean ari direla. Horretarako lantegi ttipien kopuru handia aipa daiteke, 58.885 lantegik 1 eta 9 langile artean dute eta, 10.977 lantegik 10 eta 499 langile artean.

Datu guzi hauekin ohartzen gara zerbitzuak eta komertzioak biziki inportanteak direla Akitaniaren bizi-iraupen ekonomikoarentzat.

Iparraldea hartuz ohartzen gara, ber eskema errepikatzen dela, proportzio tikiagotan: 2001ean 26.643 lantegi ziren eta horien artean %61 pertsona bakar batez osatua ziren, eta, %36 hamar langile baino gutxiagoz. Langileriaren %69, 50 langile baino gutxiagoko enpresetan ari zen.

1999ko datuen arabera zerbitzuen sektorearen garapena aipagarri da, 71.667 enplegu biltzen zituen, eta geroztik etengabe emendatu da. Hezkuntza, osasun zerbitzu eta maila sozialeko lanek lanbideen %28 biltzen dute, komertzioek %21, norbanakoen zerbitzuek %15,4. Aktibitate guzi guk turismoari lotuak dira, jakinez honek aktibitateen %15 bereganatzen duela.

Ondorioz, beste arloek, garapen txikiagoa dute eta horiei lotuak diren lanpostuak gutxi izaten dira. Horrek zenbait gazte kanpora joatera motibatzen ote du? Gustuko duten lan bat ukaiteko ote dira gazteak hain masiboki beste leku batzuetan instalatzen?

Lan hautuak alde batera utzita, ohartzen gara Akitanian, lan sariek ere egoera espezifiko bat pairatzen dutela: Frantzia osoari begira, eta arlo guzietan, bertan aurki ditzakegu lan saririk apalenak. Koadroek adibidez, eta beti ere INSEEn 2006ko eroldaren arabera, bataz beste 38.452 euroko lan saria jasotzen dute Akitanian, 43.648 euroko Frantzian, eta, beste eskualde batekin konparatzeko, 48.745 euro Pariseko eskualdean. Langileei doakionez ber errealitatea da: bataz besteko lan saria 15.836 eurokoa da Akitanian, Frantzia osoan 16.359eurokoa eta, Paris inguruan, adibidez, 17.873 eurokoa da. **Lan sari hobeago baten bila joaten ote dira gazteak? Diruak lanaren hautua baldintzatzen ote du? Zergatik Iparraldeko gazteen artean bereziki?**

Frantzia mailan, 15 eta 29 urte bitarteko gazte gehienak langilegoan ari da. 2006ko eroldaren arabera %96,9 hain zuzen ere. Horietarik %63,6 CDI batekin, eta, %16,1 CDDaz. Iparraldean, aldiz, 2003an lan kontratuen %50 baino gehiago CDD erakoak ziren.

Bertako gazteen emigrazioa bultzatu ote du egoera horrek? Gazteek lan kontratu seguruagoak nahi ote dituzte? Seguritatearen hautua egiteko gazteak etxetik joateko prest ote dira?

II. Ikerketaren Helburuak:

Problematikaren atalean aipatutako elementu guziek agerian uzten dute Iparraldea berezitasunez betea dela. Alde batetik jende desplazamendurengatik, bertako migrazio kopuruak beste inongoak ez bezalakoak direlako. Horrezaz gain, lan munduaren aldetik berezitasunak nabariak dira: zerbitzu arloaren garapena, turismoaren inguruko aktibitatearen emendatzea, hori dena lan sari apal eta langilego tasa handi batekin batera. Iparraldea, beraz, Frantziako eskualdeekin alderatuz arrunt desberdina da.

Ikasketa arloan, berriz, gazteek bertan ikasten jarraitu ahal izateko hautatzeko duten aukera eskasa aipa dezakegu, bertako eskaintzak biziki mugatuak direlako: fakultate bakar bat ikasketa panel mugatu batekin adibidez (ikus 1. eranskina).

Hori guzia ikusita, lanean hasteko dagoen edo lanean ari den gazteriaren bizipena ulertu nahi dugu. Zein diren bere kezkak, bere beharrak, zeri ematen dion garrantzia edo zeri ez.

Horretarako, orientazioaren hautua begiratu dugu beste hainbat gauzen artean, ikusteko gazteen motibazioak eta helburuak zein diren. Bakoitzaren lan esperientziaren bidez, sentimendu pertsonalen bidez, saiaturako gara aztertzen gazteok lanarekin duten harremana: zeri ematen dioten inportantzia, lanean zer bilatzen duten, eta lanak zein leku duen beren bizitzan. Esplikazio horretan, lekuarekiko harremana ere inportantea da: atxikimendu hori laneko helburua baino inportanteagoa denentz, edo lanak duen bizia baldintzatzen. Azken elementu hau, bizi-lekuaren hautuarekin esplikatzeko saiaturako gara besteak beste.

Lan hautuaren bidez esplikatzen ote da bertako gazteen emigrazio tasa handia? Ikasketa hautuaren bidez? Nolaz kanpoko gazteek beren zoriona atzematen dute hemen ber baldintza horiekin? Zein dira bata eta besteen arrazoinamendu, bizipen eta irakurketak lan eskaintzaren eta, lan munduaren inguruan?

Elementu hauen guzien bidez, inkesta honek, dituen mugak kontuan hartuz, errealitate zehatz horren aztertzea du helburu.

III. Metodologia:

III.A.- Elkarrizketaren hautua:

Gure inkestaren helburua Iparraldeko gazteriaren lan ibilbidea ulertzea da. Horren kari, ikuspuntuak, iritziak aztertzeako hautua egin dugunez, gure lana kualitatiboa izanen da. Horretarako elkarrizketak izanen dira gure lanaren oinarri, lehen erran bezala helburua jendeen bizipena ulertzea baita, hau, inguruaren ezagutza edo iritzi pertsonal baten ondorioa izan arren.

Horretarako, "bizi kontaketa"-ren teknika baliatzeko hautua egin dugu.

Mende hastapenean, 1920 inguru, garatu zen teknika hau Chicago-ko unibertsitatean, emigrazioa eta delinkuentzia bezalako fenomenoak ulertzen saiatzeko. Amerikar soziologian oinarri bezala geldituko den Florian Znaniecki jaunak idatzitako *Baserritar Polonesa European eta Estatu Batuetan*¹ liburua, esaterako, teknika hori segituz egina izan da.

Positibismo zientifikoaren aurka eraikia izana da, erran nahi baitu hemen azaltzen dena ez dela zenbaki eta neurri batzuen bidez egiten biologia edo fisikan bezala. Kontaketaren bidez, errealitate sozial desberdinak barnetik ezagutzeko parada dugu. Bourdieu frantses soziologoak ere teknika hori onartu zuen, eta 70. hamarkadan "Munduko miseria"² izeneko ikerketa lan kolektiboa argitaratu zuen lan molde hori erabiliz.

¹ William Isaac Thomas, Florian Znaniecki, *Le paysan plonais en Europe et en Amerique. Recit de vie d'un migrant (Chicago 1919). Une sociologie pragmatique*, Nathan, coil. Essais et recherches, Paris, 1998, 446 p.

² Pierre Bourdieu (zuz.) (1993). «La misère du monde». *Le seuil*, collection Libre Examen, 960 p.

«Bizi kontaketa»-ren metodoak, ikertzailearengandik, banakoaren bizitzaren ulertuz analisia egitea esan nahi du. Ikertzaileak kontuan hartu behar du metodo honen subjektibotasuna. Hainbat "bizi kontaketa" entzun behar da, haien arteko konparaketa posible izateko gisan eta horren bidez orokortasun bat agerian uzteko.

Elkarriketatik ateratako informazioei esker, ikertzailea saiaturiko da gizartearen eta aktorearen irakurketa baten egiten.

Analisia egiterakoan, ikertzaileak hiru helburu nagusi ukan behar ditu (Wacheux, 1996)³:

Lehenik, pertsonaren iraganaldia modu objektiboan hartu behar da. Analisiak, pertsonaren inguru hurbileko gertakariak nabarmendu beharko ditu.

Ondotik, ikertzaileak bizi ibilbidea berreraiki behar du, irudi koherente bat osatuz.

Azkenean, beharrezkoa da bakoitzaren diskurtsoan, elementu deskriptiboak eta azalpenak bereiztea.

Analisi lanak, selekzio eta interpretazio parte handi bat inplikatzan du. Ikerketaren arduraren eta arloaren arabera analisia desberdin gauzatua izango da. Gure kasuan, lehen denbora batean analisi "ulerkorra" egingo dugu. Honen helburua elkarriketatik bildutako fenomenoaren iturrian diren harreman eta prozesuen irudipena eraikitzea da (Kaufmann, 1996)⁴. Analisi "tematiko" bat ere egingo dugu, kontaketa bakoitzean gai bakoitzari lotutako pasarteak aztertuz. Horrekin guztiarekin ondoren analisi "konparatibo" bat egiteko prest izango dugu informazioa, egoera desberdinen artean diren berdintasun eta desberdintasunak biltzeko.

Gazteen ibilbideari buruzko informazioak jaso nahi ditugu, lan mundua nola ikusten duten, beren integrazio profesionala, eta, horrezaz gain, lurraldeari buruz dituzten ikusmoldeak. Beren asmo nahiz xedeek ere gure interesa osoa pizten dute.

Horretarako elkarriketa erdi bideratuak burutuko ditugu hautatutako pertsonekin eta bakoitzarekin buruz buru. Hemen, norberak bere ibilbidea, bere iritzia, intentzioak azalduko dizkigu.

³ Wacheux, f. (1996) *Méthodes qualitatives et recherches en gestion*. Paris, Economica.

⁴ Morgan-Kaufman, (1996) *Active Database Systems*. Widom, Ceri.

Elkarriketa bi arrazoi nagusirengatik hautatua izan da. Alde batetik metodologia horrek eskaintzen duen askatasunagatik, eta bestetik, bakoitzaren iritzia eta pertzepzioak agerian uzteko aukera ematen duelako.

III.B.- Laginketa:

Hautatu dugun lagina aztertuko dugun populazioaren zati bat da, estrapolazioaren bidez populazio osoaren ezaugarriak islatzeko hartua. Islatzen duen errealtate hori balioduntzat hartzeko esanguratsua izan behar du. Baliotasun unibertsal hau erabiliak izanen diren teknika eta laginaren neurriari lotua da.

Lagina hautatzeko bi tekniken artean hautatu behar dugu, lehena kuoten bidez gauzatzen da, eta, bigarrena, teknika probabilitarekin.

Bien arteko gatazkak alde batera utziz gero, landu behar den unibertsoaren arabera, eskuragarri diren informazioak kontuan hartuta, inkestaren nondik norakoa ikusita, eta ahal ekonomikoetan oinarrituta egin behar da laginaren hautua.

Guk, gure ikerketaren mugak aintzat hartuz teknika probabilitaren hautua egin dugu.

a) Teknika probabilitista

Teknika hauek «random» ere izendatuak dira, jakinez honek ingelesez, «zoria» erran nahi duela. Teknika honekin laginaren osaketa kasualitate osoan oinarritua da. Hitz hau bere definizio zientifikoan hartu behar da, unitate bakoitzak laginean agertzeko aukera bera duela erran nahi baitu. Konkretuki, populazioaren unitate desberdin bakoitzak laginean agertzeko probabilitate berdina duela erran nahi du.

Bi teknika aurki ditzakegu horretarako, “zorizko teknika hutsa” eta “zorizko teknika bideratua”. Lehenak unibertso homogeno bat behar baitu, bigarrena erabiliko dugu ikusiz gure unibertsoa heterogenoa dela.

b) Zorizko teknika bideratua:

Hemen, txotxetan tiratzeari ekiten diogu, baina, hau, ez da landutako unibertsoan zuzenki gauzatzen. Azken honek, aurretik egokitu beharra du bere homogeneitate falta zuzentzeko. Guri doakigun teknika dugu hau beraz, gure populazioa heterogeneoa baita.

Ondorioz, azterraldi estratifikoa hautatu dugu. Laginaren unibertsoan den estratifikazioaren antzerako bat lortuko da teknika honen bidez, laginean bertan. Bi denboraldi desberdinu behar dira hemen:

1. Unibertsoa kategoria homogeneoetan banatu behar da ezaugarri batzuen arabera, adin, bizi lekua edo sexuaren arabera adibidez.
2. Azpi-kategoria bakoitzean galdekatuak izanen diren unitateak txotxetan hautatuak izanen dira.

Unitate hauek kopuru berdinean atzemanen dira azpi-kategoria bakoitzean edota kategoriak aztertutako unibertso osoan duen portortzioaren arabera.

Laginaren baliagarritasuna neurtzeko:

Lagina baliouduna denez neurtu behar da. Horrek erran nahi du unibertsoaren ezaugarriak kontuan hartzen dituenek ikusi behar dela, estrapolazioaren bidez lortutako emaitza zuzena izan dadin. Horretarako ematen zaie horrenbesteko garrantzia hautatutako ezaugarriari.

Hautatuak izan diren ezaugarriak:

Gazteak eta lan mundua gaia aztertze jarrita 3 pertsona talde egiten ahal dira errealtate horretan diren egoera desberdinak kontutan hartzeko:

Ikasleak: Oraino ikasten ari direnak:

- Bertan sortutakoak eta bertan ikasten dutenak.
- Bertan sortutakoak eta kanpoan ikasten dutenak.
- Kanpotik ikastera etorritakoak.

Langileak: Lan munduan sartuak direnak:

- Bertan sortutakoak eta bertan lan egiten dutenak.
- Bertan sortutakoak eta kanpora bizitzera joandakoak.
- Kanpotik etorritakoak.

Langabetuak: Langabezian direnak:

- Bertan sortutakoak eta bertan bizi direnak.
- Bertan sortutakoak eta kanpoan bizi direnak.
- Kanpotik etorritakoak.

Elkarriketatuak hautatzeko kriterioak:

Inkesta kualitatibo hau 61 subjektuekin egin elkarriketen gainean oinarritzen da. (Ikus 2. eranskina)

Lapurdin gazte kopurua aise gorago denez, inkestak aztertu nahi duen lurraldea 2 zonaldetan zatitzea hautatua izan da. (ikus 3. eranskina).

Alde batetik Lapurdi, eta bestetik Iparraldeko gainerako zonaldeak. Bi zonaldetan ber subjektu kopurua elkarriketatzeko hautua egin dugu. Zonalde bakoitzaren errealitatea hobe ezagutu eta honetara hurbiltzeko kezkarekin.

Elkarriketatuak izan dira:

- Lapurdin: 28 subjektu.
- Gainerako zonaldetan: 33 subjektu.

Inkestaren helburua gazteek lan munduan sartzeko bizitzen duten esperientzia ezagutzea delako 18-29 urte bitarteko pertsonak elkarriketatzeko hautatu dugu.

Hastapen batean 18-25 urte bitarteko gazteak elkarriketatzeko pentsatua izan bazen ere, 29 urte arte hedatzea deliberatua izan da elkarriketatuen bilaketa errazteko, CSP batzuetan 25 urte pekoak biziki guti direlako.

Izan emazte ala gizon ber kopuruan elkarriketatuak izan dira.

Teknika probabilitaren hautua egin izan delako, errealitatean existitzen diren 3 egoera desberdinek (Ikasle, langile, langabetu) agertzeko ber aukera ukanen dute:

Elkarriketatuak izan dira:

- 23 ikasle. (ikus 4. eranskina)
- 27 langile. (ikus 5. eranskina)

- 11 langabetu. (ikus 6. eranskina)

Inkestan subjektu bakoitzaren ibilbidea (ibilbide horren zergatiak, motibazioak, iritziak, perspektibak, eta abar.), desplazamenduak, joerak interesatzen zaizkigulako, gazte horien sorlekua eta oraingo bizilekua kontuan hartu behar dira.

Horretarako, hiru talde horietan existitzen diren hiru multzoetako gazteak elkarriketatu ditugu:

Bertan sortutakoak eta bertan bizi direnak.

Bertan sortutakoak eta kanpora bizitzera joan direnak.

Kanpotik etorritakoak.

III.C.- Galdeketa: (Ikus 7. eranskina)

Inkesta honen helburua lanerako adinean diren gazteen errealtatea eta egiten dituzten ibilbideen zergatiak agerian ezartzea da. Horretarako, oso garrantzitsua da galdetegia nola eraikitzen dugun.

a) Inguru soziala:

Galdeketa ren lehen parteak elkarriketatuen inguru soziala kontuan hartzen du: hala nola adina, sexua, sor lekua, bizi lekua, formakuntza, oraingo aktibitatea, menperatzen dituen hizkuntzak, etab.

Inkesta hori populazio berezi batekin interesatzen denez, elkarriketatuen ezaugarriak definitua izan den laginaren arabera hautatuak izan dira.

b) Galdeketa n agertzen diren gaiak:

Hiru gai nagusi aipatzen dira:

Lehen denboraldi batean, inkesta segitua izan den edo segitua den formakuntzarekin interesatzen da. Baita orientazioaren hautuarekin ere.

Gero lanaren gaiarekin interesatzen da, lan esperientzia, bai eta lanean dituzten itxaropenekin ere.

Azkenean, gazteek bizilekuarekin dituzten harreman eta iritziak, ikuspuntuak, nahiz bertako ekonomiaz dituzten ezagutzak azalduko ditu.

c) Adierazleak:

Galdera bakoitzak adierazle bati dagokio. Adierazle horiek gazteen sentimendu pertsonalen analisia permitituko dute.

Formakuntzari buruzko adierazleak:

Orientazioaren hautua: Gazteek, zein irizpiderekin hautatzen dute beren formakuntza edo profesioa?

Ikastokiaren hautua: Nola hautatzen dute horien ikastokia?

Desplazamenduaren ikuspundua: Zer pentsatzen dute ikasteko mugitzeari? Mugitzeko gogorik badute? Zein iritzi dute kanpoan bizi duten esperientziari buruz?

Lanari buruzko adierazleak:

Lan esperientziaren apreziazioa: Lan esperientziak nola bizi dituzte? Zer preziatzen dute lanean edo ez? Zein baldintzei garrantzia ematen diete?

Lanarekin duten harremana: Zer itxoiten dute lanaz? Proiektu profesionalik badute? Zein lan perspektiba dute?

Lantokiaren hautua: Nola hautatu dute horien lantokia?

Desplazamenduaren ikuspundua: Mugitzeko perspektiba badute? Zein dira motibazioak?

Lana bilatzearen esperientzia: Nola eta non bilatzen dute lana? Nola atzeman dute lana?

Lurraldeari buruzko adierazleak:

Eskualdearen ezagutza: Zer dakite eta zein iritzi dute bere inguruan eskaintzen zaizkien formakuntzei buruz? Zer dakite eta zer pentsatzen dute bere eremuko ekonomiaz? Eta lan munduari buruz?

Eskualdearen irudia: Eskualdeari buruz zein iritzi dute? Nola ikusten dute? Orokorki irudi positiboa edo negatiboa dute?

Mugaz-gaindiko harremana: Abian dira? Zer ezagutzen dute hango ekonomiaz? Lan merkatuaz? Formakuntza eskaintzaz? Irudikatzen al dute hara joatea ikasi edo lan egiteko?

Bizimodua Iparraldean: Geroan hemen bizitzeko perspektibarik ba al dute? Zein dira hemen egoteko edo hemen ez egoteko gogoaren zergatiak?

IV. Lan taldea

Inkesta honen zuzendaritza teknikoa Solange Mariluz eta Anton Borjaren esku egon da eta lau ikertzailek burutu dute landa lana, informazioaren prozesamendua eta azterketa. Azkenik, adituz osatutako talde batek ondorioen analisisia egin du.

Zuzendaritza taldea

- Solange Mariluz
- Anton Borja

Lan taldea

- Mirentxu Arbeletxe (koordinatzailea)
- Jean Anton Durruty
- Arantza Idieder
- Eulatz Zufiaurre

Adituen Batzordea

- Jean Louis Harinordoki
- Chantal Torre
- Jean Jöel Ferrand
- Jose M. Zendoia
- Mikel Zurbano

- Milagros Amurrio
- Galder Guenaga
- Xabier Isasi
- Yolanda Jubeto

Zuzendaritza taldea

Solange Mariluz ekonomian aditua eta HEMEN Iparraldeko dinamizaio ekonomikorako elkarteko kidea da. Anton Borja, berriz, ekonomian doktore eta UPV-EHUko Ekonomia Aplikatua I saileko kide da. Biek Iparraldeko ekonomiaren inguruko azterketak egin eta argitaratu dituzte azken urteotan.

Lan taldea

Lan taldea Bordele eta Tolosako unibertsitateetako soziologia ikasleek osatua zen. Hauetariko bi Lapurdikoak izanik eta eta beste bi Nafarroa Beherekoak. Horrek aukera onak eskaini ditu subjektuak aurkitu eta elkarriketatzerakoan.

Lapurdiko bi gazteek Lapurdiko gazteak elkarriketatzea ardura zuten beraz, eta Nafarroa Behereko beste biek Nafarroa Beherea eta Zuberoko gazteen elkarriketatzeko ardura zuten.

V. Lan prozedura

Lehen denboraldi batean, eginak izan ziren ikerketetan gaiaren inguruko informazioak bilduak izan dira, inkestaren gaia kokatzeko, problematika zehatz batetara heltzeko. Hortik, inkesta eramateko egokia zen metodologia bat bilatua izan da. Metodologia horren arabera laginketa definitua izan da.

Hori egin ondoren elkarrizketa fasea hasi da, gazteen lekukotasunen bidez, errealitatean informazioak biltzeko. Horretarako galdeketa bat egituratua izan da, eta hainbat froga piloto egin da galdeketa baliagarritasuna segurtatzeko. Froga pilotuaren ondoren, galdeketa egin beharreko zuzenketak egin ondoren lanerako fitxa bat (ikus 8. eranskina) eraikia izan da, elkarrizketetan bilduko ziren informazioak gaia sailkatzeko, gero, egingen zen analisia lana errazte aldera. Fitxaren lehen parteak elkarrizketaren datu pertsonalak biltzen ditu, bigarrenak bere ikasketen ibilbidea, hirugarrenak bere lan bilaketaren esperientzia, laugarrenak lan esperientziak, eta, bosgarrenak, bere perspektiba eta bizilekuari buruzko iritziak.

Arakatzailerak bakoitzak elkarrizketatuak bere inguru sozialean zein egitura batzuen bidez (ANPE¹, *Mission locale*², etab.) bilatu ditu. Elkarrizketa bakoitzaren ondoren arakatzailerak dagokion fitxa bat bete du, elkarrizketatik atera ziren informazioak sailkatzeko eta informazio interesgarriak ez galtzeko. Grabazioak aldi oro ordenagailuan sartuak izan ziren.

¹ Enplegua laguntzeko Agentzia Nazionala.

² Inserzio profesionalerendako, gazteak laguntzen dituen egitura bat.

Nahiz eta elkarriketatuak arakatzailen inguru sozialean bilatu, hainbat neurri zuzentzaile jarraitu da alboratzea saihesteko.

Elkarriketa fasea bukatuta, lan taldeak elkarriketen azterketa egin du. Bildutako informazioak bi multzo handitan sailkatu dira: Pertsonen ezaugarriak eta iritzi, motibazio ezaugarriak.

Lan taldeak jasotako informazioaren ondorio nagusiak eman ondoren adituen taldeak ondorio hauen analisisia egin du.

VI. Analisia:

Galdeketak utzitako datuak aztertu ondoren, ibilbide eta portaera tipiko batzuk nabaritu ditugu. Gehienetan hauek desplazamendu geografiko bati lotuak dira. Gure analisia horren esplikazioan zentratu dugu, ulertu nahi baikenuen gazteak zertarako mugitzen ziren, eta zerk zuen haien destinoa baldintzatzen. Esplikazio faktoreak ugariak izanki, gauzak kronologikoki azaltzea erabaki dugu.

Lehen denbora batean ikasketak, eta gero lana, aldi oro hiru portaera tipiko desberdinduz: bertan sortuak eta bertan geldituak, bertan sortuak eta kanpora joanak, eta azkenik, kanpotik jinak.

Horrezaz gain, gazte guzietan komunean dituzten puntuak azpimarratu ditugu.

Emaizten xehetasunak azpiko puntuetan garatu ditugu.

VI.a.- Ikasleen desplazamendua:

Ikasketak egitearren desplazatzeari buruz lau ideia nagusi azpimarratuko ditugu. Ikusiko duzue, ordea, bada hainbat nabardura:

1.- Iparraldean bertan ikasten dutenek hastapenetik lan zehatz batekin lotzen dituzte ikasketak:

a) Iparraldean sortuak direnak:

Ohartzen gara hemen ikasten dutenek eskualde hau hautatzen dutela hemen etxetik eta herritik hurbil izateko. Logikoa balitz bezala aurkezten dute. Hemen egotea hautatu dute hemengoak baitira eta hemen bizitzea gustuko dutelako. Horregatik hautatu dute hemen ikastea.

Ohartzen ahal dira formakuntza profesionalaren hautua egin dutenek hemen gelditu direla egin nahi zituzten ikasketak hemen baitziren, beraz hurbilenara joan dira.

Hemen ikasten duten gazteek gehienetan ez dute mugaren beste aldera joateko asmorik. Suposa liteke sentsibiltate abertzalea izateak edo euskara jakiteak eraginen bat ukanen lukeela, baina, ohartzen gara ezaugarri horiek ez dutela hautuan eragiten.

Mugak oztopo bat errepresentatzen du denentzat, abertzaletasun sentimentuak edo euskara jakiteak ez du eraginik horretan. Azkenean, ohartzen gara denek muga materiala dutela buruan, eta beraz beren begirada muga gelditzen dela, ez doala haratago.

Hurbiltasun geografikoaren argudioa, hurbiltasun kultural sinbolikoak gainditzen du.

Horrezaz gain eskoletako orientatzaileen zerbitzuak ere horra bideratzen du, frantses sistemaren baitan oinarritua baita. Beste lau probintziei buruz informazioa izateak ahalegin berezi bat eskatzen du.

b) Jin diren kanpotarrak:

Kanpotik ikastera jin direnak kasualitatez jin dira. Ez dute hona jiteko hautua zuzenki egin, ikasketek dituzte hona etorritarazi (formakuntza berezi baten segitzeko, hemengo eskola batetan hartuak izan baitira, eta abar.)

Eskualdea ez zuten bortxaz ezagutzen beraz ez dira tokiarengatik etorri, lekua ez da izan beren etortzeko motibazioa.

“ça fait 2 ans. Ben je suis venu, donc ma copine voulait passer des diplomes de moniteur éducateur. Elle est aussi de Millau, (...) elle voulait faire moniteur éducateur donc c’est toujours le même principe c’est des concours, des concours payants donc on a sélectionnés, on en avait 5 au départ dont un ici à Etxarri et euh pour finir elle en a fait que deux financièrement on pouvait pas faire les 5 et elle a été prise à Etxarri du coup on est venu ici.

»(26 urteko gazte bat kanpotik etorria)

2.- Ikasketa unibertsitarioak segitzeko gehienak Iparraldetik kanpora doaz:

Ohartzen gara, hastapenean, formakuntzaren eskasak duela desplazamendua eragiten. Gazteak gehienetan Iparraldetik kanpora doaz hemen ez delako nahi duten formakuntza eskaintzen.

Gehienek argi erraten dute segitu nahi zuten formakuntza hemen izan balitz, hemen egonen zirela. Ikasketa tokiaren hautuan beraz, hurbiltasunaren aldeko hautua egiten dutela ikusten da.

« Après l’année du DEUG et tout, il y a au moins 50% qui sont parti sur Bordeaux, Toulouse. Et sur Pau très peu en fait. Très peu. Après il y aurait eut une licence maîtrise à Bayonne je pense qu’il y aurait beaucoup beaucoup plus de monde quoi. De personnes qui seraient pas parti ni à Toulouse, ni à Bordeaux ni à Pau quoi.”

(N. Behereko 27 urteko gazte bat).

Gehienetan ikasketen segitzeko eskualdetik mugitzen diren gazteek ez dute mugaren beste aldera joatea pentsatzen. Pentsa liteke euskara jakiteak edo sentimendu abertzaleak izateak eragin bat izaten ahal lukeela baina ohartzen gara aztertzen ari garen gaian ez duela batere garrantziarik.

Desplazatu beharrean direlarik ere mugak oztopo bat errepresentatzen du denentzat, sentimen abertzaleak edo euskara jakiteak ez du eraginik horretan. Azkenean, ikusten da muga materiala denen buruan dela, eta beraz, begirada, ibilbidearekin batera Frantziara bideratua da.

Hurbiltasun geografikoaren argudioa, hurbiltasun kultural sinbolikoak gainditzen du kasu horretan ere.

Horrezaz gain, formakuntza orientazioak ere horrat bideratzen du, frantses sisteman oinarritua baita. Mugaz bestaldeko informazioa eskuratzeak ahalegin berezi bat eskatzen du.

3.- Gutxi dira mugaren beste aldera joatea pentsatzen dutenak:

Indar eta engaiamendu pertsonal baten fruitua izan aitzin, ingurugiro berezi batean eskuratzen den informazioak du mugaren beste aldean ikasteko perspektiba irekitzen (Esaterako HEZKUNTEK programa edo ERASMUS-ek).

Hau dela eta, elkarrizketetan oinarrituz, nabarmena da ikasketak mugaren beste aldean egin dituztenek, formakuntza hauei buruzko informazioaren eskuratzeko parada ukan dutela, ibilbide berezi batean sartzen zirelako (Seaskako Batxilergoan edo Unibertsitateko azken zikloan).

Bi ibilbide tipiko nagusi agertu dira:

1.- ikastolatik pasatu direnak *“estudio guziak egin ditut euskaraz, bitxia egiten zitzaidan frantsesez egitea gero Pauen edo...”*.

2.- edo Erasmusen bidez hara joateko parada ukan dutenak.

Bestenaz, mugaren beste aldeko formakuntza eskaintza ezagutzeak, desmartxa berezi bat galdegiten du, gehiengoak egiten ez duena. Hau dela eta, nahiz eta mugaren beste aldean ikasi dutenek Euskal Herriaren kontzientzia duten, Frantzia eta Espainiaren arteko muga administratiboak eragin handia du ikasketa perspektibetan. Joatekotan Iparraldeko ikasle batek, bere begirada Frantziari buruz itzuliko du oztopo administratiboengatik, ekibalentziak ez direlako beti. Gaur egun, guti dira mugaren beste aldera ikastera joaten direnak.

Hori argiago ikus dezakegu jakinez elkarriketa denboran, galdera pausatua izan zelarik, subjektu batzuek aitortu izana ez zutela inoiz alternatiba horri buruz pentsatu. Horrezaz gain, batzuek hizkuntzaren muga aipatzen dute. Euskara ez dakitenek aipatzen dute batez ere, baina baita euskara jakin arren arlo ofizialetan erabilgarri ikusten ez dutenek ere (etxeko hizkuntza bezala soilik ikusten dutenek, eta ez unibertsitatean edo formakuntzan erabiltzen ahal den hizkuntza bat bezala).

4.- Hemengo formakuntza eskaintza mugatua, kanpoan zabala

Denen iritzia:

Hiru herrialdetako formakuntza eskaintzei buruz, orokorki ateratzen dena da formakuntza eskaintza mugatua dela, gehienbat maila unibertsitarioan. Eskualdean proposatuak diren formakuntzak, bertako lan merkatuari lotuak dira, baina hemengo gazteak ez dira beti formakuntza hauekin interesatzen (ostalaritza, laborantza, osasuna, eraikuntza, eta abar.).

Gazte anitzek ikastaldien interesa eta garrantzia aipatzen dute. Formakuntza barnean ikastaldien egiteko parada delarik preziatua da ikasleen aldetik, mundu profesionalaren ezagutzeko posibilitatea delako, esperientzia profesionala ekartzen baitu eta enpresekin harremanak lotzea laguntzen duelako. Gazteei zuzendutako ikastaldiek integrazio profesionala laguntzen dute, eta ikastaldien bidez lana atzematen ahal dela aipatzen dute. Ohartzen ahal da batzuek lehen lana ikasketaren bidez atzeman dutela, ikasketa bukatuta enpresak enplegatzea gertatzen baita.

Ikasketek behartzen duten desplazamendua orokorki positiboki preziatua da. Herritik mugitzea ikasketentzat esperientzia ontzat hartua da. Familiaren hurbiletik urruntzearen garrantzia aipatzen dute, askatasun berri baten ezagutzeko parada, jende, gauza, toki, errealitate berri batzuen ezagutzeko parada. Beti esperientzia aberasgarri gisa hartua da, nahiz eta joatea ez den beti hautu bat izan, bereziki ikasketei lotua delarik.

Elkarriketatuek orientazio mailan porrot bat badela agerian utzi dute, bereziki mugaz gaindiko formazio eta lan eskaintzari buruzko informazioaren mailan.

Eskualdeko ekonomiaren oportunitateei buruz ez direla aski informatuak azpimarratu dute batzuek.

Frantziara joan direnen iritzia:

Ikasketak Frantzian egin edo egiten dituztenek orokorki iritzi ona dute. Azkenean esperientzia aberats bat bezala ikusia da.

Autonomiaren esperientzia bizitzeko aukera bezala sentitua da, hiriko biziaren ezagutzeko parada. Kuriositate baten asetzeko modu bat bezala ikusten da: jende eta toki berrien ezagutzeko momentua dela aipatzen dute. Ikasketa denboran mugitzeko aukera izatea beste zerbaiten ikusteko erabilia da. Irekidura baten lortzeko unea, hemen egotean ez luketena lortuko.

Hala ere, orokorki ahal bezain usu itzultzeko gogoia edo beharra badutela ikus daiteke, gehienak, erregulariki itzultzen baitira, batzuk asteburu guztiz.

Mugaren beste aldera joan direnen iritzia:

Ikasketak han egin edo egiten dituztenek iritzi ona dute. Positiboki aipatzen dute.

Denek ikasketa mailan, frantses sistemari konparatuz desberdintasunak sentitu dituztela aipatzen dute. Irakasle eta ikasleen arteko harremanetan adibidez, berezitasun bat aipatzen dute. Harreman hurbil eta sakonago bat badela aipatzen dute, denengandik biziki preziatua dena.

“ deia giroa lasaiagoa da, harremanak ikasle irakasle artean hobeagoak.”

Beste batek:

“voila, ikastolan bezala da, on les tutoie, han berdina da.”

Anitzek formakuntzen alde profesionala Iparraldean baino garatuagoa dela azpimarratu dute. Ikasketak lan mundutik hurbilago lirateke, enpresekin harreman gehiago aipatzen dituzte, eta beraz, “konkretuagoak” direla erraten dute.

Ikasketen bidez hango merkatuari buruzko informazioa jasotzeko parada ukan dutenek dinamismo bat sentitu dute.

Euskaraz ikasteko posibilitatea ere preziatua da. Baina honek ez du harat joateko motibazio handiena osatzen.

HEZKUNTEK formakuntza segitu dutenek ikasteko baldintza onak azpimarratu dituzte. Iparraldean HEZKUNTEK programa segitzen duten gazteek lortzen dituzten laguntzak aldi oro azpimarratu dituzte. Diru laguntzak biziki preziatuak dira: pisua ordaindua izatea, eta abar, baldintza horietan diru arazoak dituzten gazteek ere ikasketak segitzen ahal dituztelako.

Ikasketetatik kanpo, hango giroa biziki preziatua da. Giro desberdin bat badela erraten dute: lasaiagoa, eguneroko bizian, baita ere besta egiteko.

Mugaren beste aldera ikastera joatea preziatua da jende eta toki berrien ezagutzeko parada delako.

“festa bereziki egin gabe, egin poteo, pintxo eta garagardo bat, alde zaharrean”, “han jendea baduzu kalean gaueko hamaikak arte, beraz... han haurrak oraino ikusten dituzu gaueko hamarretan dans les balançoires, eta bikaina da hemen zazpitan ez da gehiago inor kanpoan”

Ohartzen ahal da ere ikasketen bidez han bizitzeko parada ukan duten gazteek, bertako herriekin harreman azkarragoa sentitu dutela, eta ikusten ahal da eskualde hori aipatzeko maneran, muga sinbolikoa ez dela hain azkarra beren buruan.

VI.B. Langile eta langabetuen desplazamenduen faktoreak:

Ohartzen ahal da hasieran bederen, lana etxetik hurbil edo eskualdean bilatzen dutela denek. Baina, ikusten ahal da halaber, gehienetan, diplomaren arabera lana atzemateari garrantzia ematen diotela. Horretarako, usu, Iparraldean ikasten edo ikasi dutenek hemen lan egiteko aukera ukan edo ukanen dutela erraten dute, eta beraz hemen egoteko perspektiba dute, diploma profesionala dutelako alegia, eta hori hemengo lan eskaintzari lotua izaten da.

Aldiz, goi mailako formakuntza edo formakuntza berezi bat egin edo egiten dutenek, nahiz eta hemen egoteko gogoia erakusten duten, mugitzeko perspektiba dute, beti ere itzultzeko eta hemen bizitzeko asmoarekin. Lan merkatua kontutan hartzean, lan eskaintza asmoetaz sobera urruntzen delarik, mugitzeko perspektiba badute. Joaten direnean diploma eta lanaren arteko ekibalentzia eskasagatik da. Desplazamendua lanari lotutako hautua da.

Gazteen asmo eta perspektibei erreparatuta, lanarekin duten harremanak bere garrantzia badu, baina, lanetik kanpoko biziak ere eragin inportantea du. Gehienek, hemen egoteko gogoia edo itzultzeko perspektiba dute eskualdeko ingurumen eta ingurugiroarekin lotura sentitzen dutelako.

VI.B.1.- Lanari buruzko iritzia: asmoak eta itxaropenak.

a) Lan merkatuari buruzko ikuspuntua:

Elkarriketatuek agerian eman dute lana atzemateko, ez dutela instituzio espezializatueta jotzen: ANPE esaterako. Hauen eraginkortasuna zalantzan emateaz gain, denek beren sare sozialaren bidez atzeman dituzte lanak. Azken finean ezagunen, lagunen edo familiaren harremanen bidez lortu dituzte lan postuak. Gauzak horrela, kanpotik etorri direnek harremanik ez dutenez, integratzeko zailtasunak aipatzen dituzte.

Gazteek hemengo lan eskaintza beren egoeratik bakarrik ezagutzen dute. Horrek erran nahi du bakoitzak bere arloari doakion lan eskaintza deskribatzen ahal duela, lan merkatuaren irudi orokorrik ukan gabe. Hala ere, eskaintza mugatua dela erraten dute eta lau poloren inguruan dela nabarmentzen dute: turismoa, zerbitzuak, eraikuntza eta laborantza. Kuadro edo ofizio intelektualentzat lan eskaintza oso mugatua dela agerian utzi dute. Gainera hauek kostaldea eta barnealdearen artean desberdinki banatuak direla zehazten dute. Zehaztu behar da barnealdeko elkarriketatuan, batzutan, emazteek atzeman ditzaketen zailtasunak azpimarratuak izan direla, tokiko lan merkatuan eraikuntzari garrantzia handia ematen zaiolako.

Orokorki, eskualdeko lan eskaintza eta gazteen formakuntzaren artean desoreka bat badela sentitzen dute.

"C'est quand même assez limité je trouve. Faut faut quand même galérer pour trouver quelque chose. »

(24 urteko gazte bat).

Mugaz gaindiko lan merkatuaren irudia oraindik orokorragoa dute. Gutxi batzuk industriaren garrantzia aipatzen dute beste zehaztapenik erantsi gabe.

Iparraldeko industrializazio eskasa aipatzen dute gehienek. Euskal Herriko irudiaren atraktivitateaz kontzienteak dira, baina ez dela ongi baliatua azpimarratzen dute. Turismoarentzat bakarrik baliatua dela erraten dute, eta ez garapen ekonomiko iraunkor batentzat.

Hegoaldearekin harremanak garatzearen garrantzia azpimarratu dute batzuek, eskualdeko ekonomiaren bultzatzeko eta dinamizatzeko.

“han adibidez industrian lan egiteko posibilitate gehiago badira eta lan eskaintza gehiago”

“turistikoa da gehienbat, hegoaldean badira industria askoz gehiago”.

“Pour moi à la rigueur il faudrait quelque chose qui se crée pour encourager un peu les jeunes, les jeunes basques à, à créer un peu leur entreprise et euh, et à faire de cette frontière, enfin à exploser un peu cette frontière avec avec l’ Espagne avec le PB. Espagnol pour qu’il y ait pleins d’entreprises qui se créent, des entreprises de services, des des petites industries. C’est vrai que pour moi il faudrait, il faudrait que ça se rencontre.”
(27 urteko kuadro bat).

Azken finean, elkarriketatuek horien ikasketei loturiko edo lan egin nahi luketen arloan den lan eskaintza ezagutzen dute gehienbat, lan hori horien sare sozialaren bidez lortzen dutelarik. Horrezaz gain, lurralde honetatik kanpo den eskaintza ezagutuz gero, Frantziakoa mugaren beste aldean dena baino hobeto menperatzen dute.

b) Ikuspuntu pertsonalak: Iritzi eta itxaropenak:

Gazteek lanarekin duten harremana aztertzeke lanari buruz dituzten asmoak aztertzea beharrezkoa da. Erran nahi baitu zerri garrantzia ematen dioten lanean, lan baldintzei buruz dituzten iritziak, baita lanean zer bilatzen duten ere (laneko bete beharrak).

Hastapenean erran genuen Iparraldean Frantziarekiko lan sariak apalagoak zirela. Alta ohartzen gara elementu hau ez dela garrantzitsuena gazteen itxaropenetan. Egia da diru aski nahi dutela duintasunean bizitzeko, baina lan saria ez dute motibazio edo lan baten trakzio bezala ikusten.

“ez dut irabazten “des millions”, c’est pas le but, baina badut aski bizitzeko eta deia ongi da.”

Ber ildoan ordutegiei ere garrantzi murrizta ematen diete. Hau, lehen esperientzietan ikus dezakegu, denborarekin batera lana eta lana ez denaren artean oreka baten lortzeko xedea sortzen delako. Azken finean, malgutasuna bizi profesionalaren hastapenean onartua da.

”nahi nuke norbait hartu “a mi temps”, pixkat denbora izaiteko neretzat”

Bilatua den oreka gogo hau lan kontratuan ere isla daiteke. Hastapenean, esperientzia desberdinak “pilatu” nahi dituzte. Ondorioz, epe laburreko lan kontratuak onartzen eta bilatzen dituzte. Ikasketetan ari direnean epe laburreko kontratupean lan egiteko gogoareagotzen da, denboraldi berezi batean lan egin nahi dutelako bakarrik. Lan kontratu mugagabearen xedea berantago heldu da, egoera pertsonal eta profesionala egonkortzeko gogoarekin batera.

Ondorioz, lan saria, ordutegia, edo kontratuak ez dute lan baten interesa laburbiltzen galdekatutako gazteentzat. Ber ildoan, beraz, ez dute desplazamendua motibatzen.

Gazteek lanaren beste aspektu batzuei ematen diete garrantzia:

Lehenik eta behin, lanaren edukia bera gustukoa izan behar dute. Horrezaz gain, edo horretarako, beraien lanaren baliagarritasuna ikusi behar dute. Lanean inplikatuak izan behar dira.

Ber momentuan lanean aldaketa, eboluzioa izanen dela jakitea atsegin dute. Hau jakintzen aldetik uler daiteke, etengabeko formakuntzen bidez, baita estatusaren aldetik ere, erran nahi baitu aldaketa hierarkiko batekin.

Lan autonomia egiten duten gazteek ezaugarri hau aipatzen dute. Independentea izatea preziatua da lanean zerbait ekartzeko edo egiteko medio bat baita, kasu batzuetan horrek ekartzen ahal dituen zailtasunak aipatzen badituzte ere. Horren bidez beren baliagarritasunaren froga sentitzen dute.

Azkenik, lankideekin harreman onak izatea, giro goxoan aritzea beharrezkoa dela azpimarratzen dute denek. Giro ona izaitea lanean, ontsa sentitzea lanean garrantzi handia duela ikus daiteke.

”L’ambiance de travail, je pense qu’il faut une bonne ambiance pour bien travailler.”

(22 urteko gazte bat).

Iritzi hauek ikusita, beste inkesta batekin konparatzea interesgarria iruditu zaigu. Herzberg-ek lanari lotutako baldintzak bitan sailkatzen ditu eta hauek langilearen gogoan duten eragina azaltzen du Motibazio-higienearen teoriaren bidez (Ikus 9. eranskina).

Herzberg-ek inginari eta diruzain gazte batzuk elkarrizketatu zituen. Horren bidez bi gauza ikusi nahi izan zituen: zein momentutan ongi sentitu ziren lanean, eta, zeinetan ez. Bi faktore mota atera zituen inkesta horretatik:

Lanaren barne faktoreak: betekizun pertsonala, besteen errespetua, onarpena; lana bera; ardurak; eboluzioa; atsegin pertsonala.

Lanaren kanpo faktoreak: administrazio eta barne politika; zuzendaritza; lan baldintzak; harremanak; posizio soziala; seguritatea.

Barne faktoreen presentziak lanean atsegina eragiten du. Kanpoko faktoreak aipatzen dituztelarik, eta preziatuak direlarik, egoera neutro batean dira. Aldiz, hauei buruzko kritika bat dutelarik lana desatsegina atzematen dute.

Gure gazteek adierazi dutena Herzberg-ek adierazitako teoriarekin bat dator, nahiz eta gazte izanik hauek bereziki azpimarratzen dituzten motibazioa pizten duten faktoreak eta ez horrenbeste ongizatea dakartenak.

c) Lanak ditu desplazamenduak baldintzatzen:

Gazteek, ibilbide profesionalaren hastapenean lanbidea diplomaren arabera hautatzen dute. Horrek erran nahi du, ekibalentzia bat bilatzen dutela lana eta ikasketen artean.

Ondorioz, lekuko lan eskaintzan beren formakuntzari doakion aktibitatek atzematen ez badute, mugitzeko prest dira.

Hala ere, zehaztu behar da, itzultzeko proiektua agertu dela kasu gehienetan.

Beraz, bi desplazamendu mota ikus ditzakegu, eta hauek, sarritan, diploma unibertsitario eta espezifikoak dituzten gazteek dituzte gauzatzen:

A desplazamendu mota: Kanpoan ikasi dutenek, unibertsitarioak edo formakuntza berezia egiten edo egin dutenek, Frantzia lan egiteko perspektiba dute:

Goi mailako formakuntza edo formakuntza berezi bat egin edo egiten dutenek, nahiz eta hemen egoteko gogoa erakusten duten, Frantziara mugitzeko perspektiba badute, baina beti itzultzeko eta hemen bizitzeko asmoarekin. Iparraldeko gazteak joaten direlarik edo joateko perspektiba dutelarik hemen diploma eta lanaren arteko ekibalentzia eskasa delako izaten da. Horrelakoetan esperientzia "pilatzea" dute helburu, beti ere itzultzeko asmoarekin, hemen diplomatik hurbil den lan baten atzemateko itxaropenarekin.

Lanak inportantzia badu beren bizian beraz, nahiz eta hemen egoteko gogoa erakusten duten, hemengo lan eskaintza ikusiz, ez badute beren lanetik hurbiltzen den zerbait atzematen mugitzera behartuak izan edo izanen direla erraten dute.

« Après (estatu batuetatik landa) j'ai cherché encore du travail au Pays Basque parce que je voulais vraiment revenir, j'ai rien trouvé du tout. Et donc euh, je me suis remis à chercher sur Bordeaux, j'ai trouvé sur Bordeaux. »
(N. Behereko 27 urteko koadro bat Bordelen ikasi duena.)

« Ici selon moi ça va être difficile parce que les services sont déjà en place et euh ils sont déjà complet quasiment et euh (...) mais bon je me dis pourquoi pas, mais bon c'est vrai que ça va être difficile de trouver ici d'abord, de trouver directement un premier emploi ici je pense que ça va être difficile. »
(Nafarroa Behereko 22 urteko gazte bat).

Ikasketetan edo lanean inplikaturik den jendea da. Lanean inplikazio azkarra sentitzen eta bilatzen duen jendea da. Lanean proiektu edo helburu bat duen jende bat, edo zerbait, eragin pertsonal baten ekartzeko gogoa duena. Lanak inportantzia handia du beren bizian beraz mugitzeko prest dira bere proiektua gauzatzeko.

Aipagarria da hala ere, horientzat lanak beren bizian garrantzia badu ere, itzultzeko gogoa azkar dutenez, lanaren inguruan malguago izateko prest direla. Nahiz eta ez duten arraz bilatzen zuten lana aurkitzen, hemen lan egiteko aukera izaten badute, horien lan idealetik sobera urruntzen ez den lan baten onartzeko prest dira. Ez badute deus atzematen aldiz, kanpoan egotera behartuak izanen direla erraten dute, baina gehienetan urte batzuen buruan bada ere, ageri da horien erranetan hemen atzemateko itxaropena dutela.

Kanpotik jin direnentzat ere, gehienetan hemen egoteko gogo agertzen da, baina goi mailako edo formakuntza berezi bat egin edo egiten dutenek nahiz eta hemen egoteko gogo erakusten duten mugitzeko perspektiba badute. Joaten badira diploma eta lanaren arteko ekibalentzia eskasagatik da berriz ere. Hala ere, batzuk, hemen egoteko, profesionalki kontzesioak egiteko prest dira. Horientzat lanak inportantzia badu ere, ingurugiroa edo ingurumenak ere badute berena. Horiek hemendik joatera behartuak izanen direla erraten dute.

B desplazamendu mota: Mugaren beste aldean ikasi dutenek edo goi mailako formakuntza dutenek, han lan egiteko perspektiba dute.

Han lan egitea gutik pentsatzen dute. Elkarrizketatuen artean, lana mugaren beste aldean bilatu dutenak guti dira. Hori beren errepresentazioei lotu daiteke, muga administratiboaren ondorioz, gaur egun buruan duten muga sinbolikoari lotua, begirada mugan gelditzen zaie.

Gero, ohartzen ahal gara, han lan egiteko aukera irudikatzen diegularik, posibilitate hori ikasketentzat baino errealago ikusten dutela.

Ikasketak mugaz gaindi egin dituztenek, han lan egiteari pentsatzen dute.

Aldiz, Frantzian ikasi dutenek, Frantziari buruz dute begirada, hona itzultzeko gogo atxikitzen badute ere. Ikasketak egiten diren lekuak lan perspektibak baldintzatzen dituela erran daiteke beraz, Frantziara joan direnek Frantzian pentsatzen dutelako, eta, mugaren beste aldera joan direnek han lan egiteko posibilitateaz pentsatzen dutelako Frantziarekin batera.

Langileetan, ohartzen ahal da goi mailako diploma dutenek edota formakuntzaren bidez mugan beste aldeari buruzko informazioa izateko parada ukan dutenek, industria arloan gehienbat, han bilatzea pentsatu dutela eta konkretuki han bilatu dutela. Hango lan dinamismoa aipatzen dute, eta beraz han lan egiteko interesa.

VI.b.2- Lanetik kanpoko bizia:

Nahiz eta lanak garrantzi handia ukan gaur egungo bizian, denbora aldetik edo pertsonalki, gazteek lanetik kanpoko biziari buruz iritzia emateko denbora hartu dute. Batzuk kasik hortaz bakarrik hitz egin dute, bereziki ikasleek.

Gazteek, beren geroan, lana eta lanetik kanpo diren gauzen arteko oreka bat lortu nahi dute. Heldu izatean, lanetik kanpoko gauzek garrantzi handia lortzen dute beraz (familia, lagunak, aisialdiak, ingurumena).

Lanetik kanpoko biziarekin interesatzea inportantea da desplazamenduen faktore batzuk horretan atzeman ditzakegulako. Usu, bizi-leku perspektibak lanetik kanpoko elementuek elikatzen dituzte alegia: noren ondoan bizi nahi dugun, zein kulturari, zein ingurutan, etab... Horren bidez ohar gaitezke lana berak ez duela desplazamendua esplikatzen ahal.

a) Lanetik kanpoko biziari buruzko iritzia:

Inguru soziala eta kulturala:

Elkarrizketatuek bere inguru sozialaren garrantzia goraipatu dute. Horrek erran nahi du, lagun sare baten kide sentitzen direla, familiaren hurbiltasuna gozatzen dutela. Hau dena beharrezkotzat jotzen dute, eta beraz, beren bizi-leku perspektiba baldintzatzen du. Ez dute beren sare sozialetik urrundu nahi.

« Mes connaissances. Tous mes vrais amis sont ici. Toutes mes attaches sont ici, euh j'ai ma copine qui est ici. »
(22 urteko gazte bat).

Iparraldean hazi direnek edo kanpotik etorri direnek, giro berezi bat badela diote. Orokorki biziki preziatua den elementu bat da hori gainera. Giro hori, dinamismo kultural, elkarte sare ugarietan edota bestetan oinarritzen da. Gazteek astebururo ekimen bat izatea preziatzen dute halaber.

« (...) je trouve ça excellent parce que dans, dans des région comme moi d'où je viens de l'Aveyron, on voit des villages entiers morts où il y a plus rien parce que euh, le bar a fermé, parce que la boulangerie a fermée, parce que le boucher a fermé, et une fois que les trois principaux ferment, euh le village en quelques années euh il y a plus rien. Il y a plus que les maisons qui se ferment et euh voilà. Ici il y a, et ce qui ce qui est marrant c'est que, les gens d'ici, ne le voit pas du tout. Il il y a beaucoup de gens d'ici qui trouvent que c'est mort. Qui se qui se, moi j'avais des copains au CFA ils disaient mon village il est mort. Mais il y a quoi dans ton village, il y a 2 bars, une boulangerie. Il est mort? Mais non c'est pas ça un village mort, il est il est vivant. (...) Un village mort c'est des gens qui rentrent à 8 heure du soir, tous en même temps, qui gare leur voiture devant leur maison, qui rentrent dans leur maison, qui ferment leurs volets, et qui ressortent à 8 heure du matin. Où il y a plus de comité des fêtes. Et en Aveyron il y en a pleins. Il y a il y a plus de comité des fêtes. Et et ici dans nimporte quel village il y a des comités des fêtes, même s'ils se regroupent avec un autre village parce qu'ils sont moins nombreux, il y a une fête de village c'est obligatoire. Moi je connais pleins de fêtes de villages qu'il y a pas de fêtes de vilage, il y a plus rien.»

(Kanpotik etorri den 26 urteko gazte bat).

Besta aipatzerakoan mugaren hurbiltasuna atsegin dute. Lurralde horrekin dituzten harreman gehienak, besta, animazio kulturaletatik pasatzen baitira hain zuzen ere. Desplazamendu hau nabariagoa da kostaldeko gazteen artean.

Ohar gaitzeko denek, hemengoek edo kanpotarrek, talde baten existentzia sentitzen dutela euskal kulturari erreferentzia eginez edo giro herrikoi bati erreferentzia eginez. Familia giro bat aipatzen dute. Batzuek, zuzenki euskal kulturarekin lotzen dute giro berezi hori: euskararen praktika, dantza, kirola, gazte elkarteak, etab. Besteek kultura berezi baten presentzia sentitzen badute ere, ez dute nortasun propio baten bidez esplikatzen, ez dute jatorri zehatzik identifikatzen ahal.

Aipagarria da barnealdeko elkarriketetan herri giro hori oraino gehiago azpimarratu dutela. Herri txikiz osatutako eskualdea delako, eta, gainera, euskal kultura (hizkuntza eta ohiturak), gaur egun, eguneroko bizian presentzia handia dutelako.

Kultura berezi horrek lurraldeari erakargarritasuna ematen dio. Atzeritarren elkarriketatan oroz gain ateratzen da, etorri aitzin ez zutelako batere ezagutzen tokiko errealtatea eta berezitasuna. Kulturak beraz, hemen egoteko gogoia pizten du. Hala ere, batzuek, kultura horren baliatzeko manera salatzen dute, horren inguruan sortzen den komertzioa. Azken finean, batzuen arabera, lurraldearen espezifikotasun eta nortasunaz baliatzen dira batzuk lurraldearen saltzeko, gune turistikoko huts baten sortzeko.

« Je connaissais pas du tout, et quand je suis arrivé ici j'ai été agréablement surpris, parce qu'on m'avait dit beaucoup de choses du Pays Basque, beaucoup de choses fausses. Des gens froids, des des gens bourrus, des gens qui, te parlent pas, qui euh te regardent pas ou quand ils te parlent c'est pour te critiquer. Et en fait je suis arrivé ici, j'ai laissé de côté toutes les choses qu'on m'a dit. Je suis arrivé ici, j'ai fait mon petit bout de chemin, et je me suis rendu compte que les gens qui disent ça; sont jamais venu vivre au Pays Basque. Mais son venu à Bayonne ou à Biarritz ou à Anglet..., ou en fait euh il y a pas beaucoup de basques quoi. Et euh le Pays Basque, donc euh, ce que je considère comme le Pays Basque, plus l'intérieur, euh c'est pas du tout ça, c'est tout l'opposé. Les gens euh, se renseignent sur toi, peut être par curiosité mais pas du tout de façon malsaine, pour savoir qu'est-ce que tu fais, d'où tu viens. Donc toi en contrepartie ben tu va aussi aussi lui demander des trucs, tu te renseignes sur les gens. Donc du coup t'apprends qui que euh il y a une langue, que il y a des coutumes, que il y a des traditions. Et toutes ces choses là en fait tu t'aperçois que... toute les choses euh... culturelles ici, sont vivantes. Et, moi ça ça m'a fait halluciner, que il y ait encore toute une culture vivante, dans une région de France, que maintenant je dis souvent un Pays, parce que euh je me suis tellement habitué à dire le Pays Basque. Mais ici tout ce qui est culture et euh, et vie, vie dans les villages eh be c'est vivant. Il y a de l'animation, il y a des gens, il y a des gens qui se battent pour défendre du théâtre. Il y a des gens qui se battent pour défendre leur musique, les danses, les euh, et c'est pas un folklore. Parce que souvent on me dit c'est un folklore. Non non non non, c'est pas un folklore, c'est euh, je sais pas le le bertsularisme, c'est pas un folklore. C'est quelque chose qui se passent euh dans des fêtes, dans des peñas, qui se passent mais euh c'est la vie, c'est la vie ici. C'est pas parce que il y a des touristes Juillet Août qu'on va commencé à chanter. Non non, on est en plein hiver dans un bar où il y a une bonne ambiance ou dans une cidrerie, ça va se mettre à chanter. Et ça c'est pas du folklore c'est une vie, c'est la vie d'ici. C'est pas comme dans certaines régions où euh, quand il y des périodes estivales, il y a le folklore qui revient, mais c'est plus pour euh, faire connaître aux gens les anciennes

traditions, les anciennes coutumes. Et euh, moi souvent mes copains ce que je leur dit c'est qu'ici il y a pas des anciennes traditions, des anciennes coutumes, c'est quelles sont vivantes encore et elles continues, les gens les font encore volontairement. Personne ne se dit ben tiens têh on va faire ça parce qu'ils faisaient ça avant, non non on fait ça parce que c'est comme ça, il y a pas de questions à se poser et moi j'ai adoré ça. Quelque chose que je connaissais pas du tout. Et j'ai adoré ça, je me suis passionné pour ça, je me suis bien renseigné sur tout ce qui se faisait, et euh, et du coup ma copine a suivi aussi. Et maintenant on veut s'installer ici parce que, on trouve que, c'est une richesse qu'on a, on a fait beaucoup, quasiment toutes les régions de France, c'est une richesse qu'on a vu nulle part quoi.(...) Et quand on est arrivé ici... euh... au bout de 6 mois, on s'est dit ben on reste ici. Même si je trouve pas de boulot, même si je réussis pas mon diplôme, même si elle réussit pas le diplôme, c'est pas grave on va rester ici au Pays Basque. Parce que euh, parce que on a euh un coup de foutre. Tu peux pas l'expliquer, tu sais c' est comme ça».
(26 urteko kanpotar bat)

Batzuek, gauzak sortzeko gogoia ere erakutsi dute, eskualdeari gauzak ekartzeko. Baina egiturek gazte inizatibak laguntzeko gogo eskasa dutela iritzita, aktore hauek beren proiektuen gauzatzeko zailtasunak dituztela aitortzen dute.

Hala ere, giro eta nortasun azkar horren izateak atseginak ez diren aldeak ukan ditzake atzerritarrentzat, integrazio mailan.

Ohartzen ahal gara hemengo jendeekin harremanak dituztelarik giro herrikoi berezi bat sentitzen dutela eta hori biziki preziatzen dutela. Besteek aldiz, giro herrikoi bat sentitu arren, ez dira integratuak ikusten.

Kasu batzuetan ohartzen ahal gara bertako jendea atzerritarrei "itxia" dela pentsatzen dutela.

Horra atzerritar baten iritzia bere lanari buruz, azkenean bere ikuspuntu orokorra agertzen da:

"les basque sont de gens assez dur a manager, dans le sens ou il sont durs, ouais, ils sont très dur, dans le caractère".

Denbora behar da konfiantza lortzeko:

“je pense qu’il faut longtemps pour qu’ils vous fassent confiance et qu’ils veuillent bien vous laisser faire à leur place.”

Laburbiltzeko, erran daiteke Iparraldeak eremu txiki bat osatzen duela, eta ondorioz familia giroa badela. Horrek indarra eta alde dinamiko bat ekartzen dio. Denek kulturaren presentzia hori anitz preziatzen dute, pertsona batzuek zinez goraipatzen dute, kanpoko jende batzuek sare horretan sartzeko zailtasunak sentitzen badituzte ere.

Bizi-baldintzak:

Guziek eskualdearen ingurumena biziki preziatzen dute: itsasoa, mendia, etab. Anitzetan erranaldi hori atera da: *“il y a la mer et la montagne.”*

Horrezaz gain, herrietan bizi direnek lasaitasuna aipatzen dute, herriko bizia gustukoa dute.

« L’ambiance général est beaucoup plus détendue qu’en ville déjà, que en ville en fait ils courent partout que en fait j’arrive pas à m’habituer. A Paris, à Rennes, à Bordeaux les gens ils courent, je sais pas pourquoi d’ailleurs.”
(22 urteko gazte bat).

Garraio publikoen garapen eskasa aipatzen dute, mugikortasuna izateko autoaren beharra badela agertzen da.

« Enfin moi je trouvais hyper dur, après c’est sûr on est pas mal de jeunes ici, tout le monde a envie de travailler, c’est vrai que pour rester dans le coin. Après forcément t’as pas de permis non plus. Donc euh soit l faut te trouver une chambre euh, faut faut que quelqu’un t’accompagnes euh, enfin moi je trouvait très dur pour l’été surtout. »
(24 urteko gazte bat udako lana aipatzean)

Mugarekin den hurbiltasun horri balioa ematen diote, atsegin dute bereziki erosketak egitera joateko.

« D’y aller pour le foot, faire les soldes, euh faire la fête euh, et ouais non j’y suis allé j’y suis allé souvent. »
(22 urteko gazte bat).

b) Hemengo lurraldearen errealitatearen ondorioak:


Gehienek hemen egoteko erakusten duten gogoia, neurri batean ingurugiroari lotu daiteke. Horrezaz gain, ingurumen sozialaz hurbil bizitzeko xedea ere ikusten da.

Beren lan ikerketa lekuak hori islatzen ahal du. Adibidez hemengoek beren bizi profesional egonkorra hemen gauzatu nahi dute, baita kanpokoek ere. Gauzak ez balira hala pasatzen, gazteak hemendik joan behar balira, beti itzultzeko proiektuarekin izanen lirатеke. Lehen denbora batez atzerrira joanen dira, lan helburua errealitate bilakatzeko, baina beren bizia hemen pasa nahi dutenez, berantago itzultzeko proiektua dute.

Horretarako, Iparraldean ikasten dutenek hemen lan egiteko aukera ukan edo ukanen dutela badakitenez, hemen egoteko perspektiba dute. Gehienek diploma profesionala dutelako alegia, eta hori hemengo lan eskaintzari lotua baita. Hemen ikasten ez dutenek ere, hemen lan egiteko xedea dute, hemengo bizi baldintzei lotuak baitira. Horren irudikatzeko ikustea aski da gehienak astebururo itzultzen direla.

Batzuek ere, lan proiektu finkorik ez dutelarik, hemen egoteari lehentasuna ematen diote.

Hemen lan egiten dutenek beren lanean ontsa sentitzen direnean, hemen egoteko perspektiba dute. Ez dute joateko asmorik. Aldiz, helburu profesional eta lan merkatuaren artean konkordantziarik atzematen ez dutenek, mugitzeko posibilitatea aztertzen dute, nahiz eta migrazio hau ez duten definitiboa ikusten.



V. Ondorioak:

Elkarrizketek utzi dizkiguten erantzunak aztertuz azpimarratu ditugun elementuen argitan:

V.1.- Bizitza ibilbideak

Iparraldeko gazteen artean ikus ditzakegun bizitza ibilbideak, hirutan sailka ditzakegu nagusiki:

A IBILBIDEA: Iparraldean ikasi eta Iparraldean bizi.

Formakuntza Iparraldean bertan jaso dutenek, bertan bizi eta lan egiteko asmoa adierazten dute eta lortzen dute. Hauen artean bistan da, talde desberdinak daude. Bada multzo bat, bertan sortutakoena, etxe ondoan eskaintzen zaion formakuntzaren aldeko hautua egin duena bertan bizi eta lan egin ahal izateko. Beste taldea, formakuntza jakin bat jasotzera kanpotik etorri eta bertan gelditu direnek osatzen dute. Motibazio desberdinek eraginda bada ere, antzeko ibilbidea egiten dute. Talde honen ezaugarri nagusiak bi dira, formakuntza maila baxua edo ertaina eta bertan bizitzeko hautua bertako bizimoduarekiko atxikimenduak eraginda.

B IBILBIDEA: Iparraldetik kanpo ikasi, kanpoan bizi, baina sorterrira itzuli.

Formakuntza kanpoan jaso dutenen ibilbidea oso bestelakoa da. Ikasketa jakin batzuekin sentitzen duten atxikimendua handia da eta horrek ikasketa horiek egitearren etxetik urruntzera bultzatzen ditu. A ibilbidean artean bertan sortutako taldearen aldean guztiz bestelako joera du, beraz. Oro har, kanpora joatearen balorazio oso positiboa egiten dute guztiak, bai formazioari dagokionez bai bizimoduari dagokionez. Ibilbide honetan kokatzen dira formazioa Frantzian zein Hegoaldean jaso dutenak. Ibilbide honetan dabilztan gazte guztiak, ordea, sorterrira itzultzeko asmo sendoa adierazten dute eta horretan A ibilbideko gazteen sentsibilitatearekin bat egiten dute.

C IBILBIDEA: Kanpotik etorri eta Iparraldea deskubritu

Kanpotik ikastera etorritako gazte gehienak formakuntza jakin baten bila etorritakoak dira. Motibazioa guztiz instrumentala da. Iparraldetik kanpora joandako gazteek bezala hauek ere positibotzat jotzen dute desplazamendua. Iparraldean izandako bizi-esperientzia ere oro har positiboa dela ikusten da. Ikasketak amaitutakoan bertan lan egin eta bizitzan jarraitzeko asmoa adierazten dute. Erabaki hori jasotako formazioaren garapen profesionala izateko aukerari eta bertako bizi-baldintza egokiei loturik doa. Baina, inguru sozialean integratzeko zailtasunak aipatzen dituzte. Zailtasun horiek gainditzeko, beraz, subjektu bakoitzak bere ibilbide propioa egin behar izaten du iristen den une beretik.

V.2.- Ondorio nagusiak

Iparraldeko formazio eskaintza mugatua da, batez ere, goi-mailako ikasketetan. Gazteak errealitate horrekin kontziente dira eta beren formazioa, ibilbide profesionala edo bizilekua erabat baldintzatzen iristen da.

Formazio eskaintzaren ezaugarriek gazte askoren bizilekua edo garapen profesionala baldintzatzen ditu. Bertan bizi nahi duenak formazio maila apaldu behar izaten du bertako lan merkatuak eskaintzen dituen lanpostuetara egokituz bertan bizitzan jarraitu ahal izateko. Aldiz, formazioa bertan bizitzearen aurretik jarri behar izaten du gazte askok eta unibertsitate mailan gogoko ikasketak egin ahal izateko kanpora joateko erabakia hartu behar izaten du. Erabaki hori ez dago formakuntzaren hautuari bakarrik loturik, ibilbide profesionala eta bizilekua baldintzatzen iristen den erabakia da.

Formakuntza eskaintza mugatuak eta bertako lan merkatuaren izaerak (jarduera eremu gutxi batzuen nagusigoa) populazio mugimendu handia eragiten du, ikasteko edo zenbait lanbidetan jarduteko Iparraldeko gazteen zati handi batek sorterrria utzi behar izaten du eta honekin bertako gazterik formatuenak galtzen.

Bertako gazterik formatuenak joan beharra eta bertako lan merkatua kanpotik etorritako gazteez osatzeak bertako gizartearen eraldaketa sozio-kultural handia dakar, beti ere, kinka larrian dagoen bertako identitatearen kaltetan.

Bertako gazteek, kanpora joandakoek zein bertan gelditutakoek atxikimendu handia sentitzen dute Iparraldearekiko eta bertan bizitzen jartzeko borondatea adierazten dute. Beraz, kanpora joatea estrukturaliki eragindako mugimendua da, ez da gazteen borondatez gertatzen eta hein batean bertako gazteen nahiaren kontrakoa da.

Bertako bizi-kalitatea eta inguru soziala biziki preziatuak dira gazteentzat. Beraz, esan daiteke ez dagoela marjinazio edo ukazio jarrerarik gazteen artean.

Muga administratiboak muga psikologikoa izaten jarraitzen du. Mugaz gaindiko elkarlan politikak ez dute gazteek ikasketak edo lantokia hautatzeko portaeran ia eraginik.

Hegoaldeari buruzko informazioa formalki emateko antolatu diren saioek gazteen muga psikologikoekin egiten dute topo. Hegoaldean ikasi edo lan egitearen esperientzia bizi izan duten gazteen balorazio positiboak erakusten du bide horrek aukera onak dituela etorkizunean.

Iparraldeko gazteek bertako lan merkatuari buruz oso informazio gutxi izaten dute eta are gutxiago Hegoaldekoaz. Gainera, alor hauetako informazioa jasotzeko eta lanpostuak aurkitzeko bide informaletara jotzen dute gehienbat.

Kostaldea eta Barnealdearen arteko desoreka handia da lan merkatuari dagokionez. Baiona eta Lapurdiko kostaldea da lan merkatuari dagokionez inguru aktiboena eta aberatsena, nahiz eta hau ere jarduera eremu gutxi batzuetara mugatua izan. Berez nahikoa mugatua den lan merkatua are mugatuagoa da barnealdean. Horrek berarekin dakartza hainbat ondorio, jarduera profesionalen aldetik oso mugatua dela eta beraz, lan merkatua horretara mugatzen dela, emazteentzat lan eskaintza are mugatuagoa dela, beraz, migratzera are behartuago daudela...

Lan eskaintza eta formakuntzaren artean desoreka dagoela sumatzen dute gazteek. Hots, lan merkatua formazio eskaintza bera baino mugatuagoa dela. Gertaera hori sentimendu negatiboz bizi dute gazteek, batez ere, lanpostu eskaintzak ez dituztelako erakargarri ikusten eta gainera, turismoaren nagusigoaz duten iritz negatiboak sektore horretan jardutera ez dituelako batere animatzen.

Gazteek esperientzia hartu nahi izateak lan baldintzak gutxietsi eta errotazio handia duten ibilbidea egitera daramatza. Formakuntzari dagokionez komenigarria izan daiteke, merkatuak formazioa eskatzen baitu, baina horrek enpresentzat arazo eta galera handia dakar, gazteak ez baitira konprometitzeko prest eta enpresan jasotako formakuntza galdu egiten delako. Horrela oso zaila da ibilbide luzeko eta formazio sakoneko profesionalak izatera iristea.


Ikuspegi eta pentsamoldez oso jarrera malgua adierazten duen gaztedia da. Profesionaltasunari garrantzia handia ematen dio eta neurri berean prest da bere bizimodua bere lan jardunari lotzeko edo bizilekua horretara makurtzeko. Zoritxarrez, formazio eskaintza mugatuak eta goi mailako profesionalen behar apalak gazte asko, gehiegi emigratzera behartzen ditu.

Kanpotik etorritakoak kasualitatez etorri iritsi izana eta bertako errealtate kultural bereziaren aurrean harriturik sentitzeak agerian uzten du bizi duten desinformazioa. Komenigarria litzateke integrazioa erraztu edo lagunduko lukeen oinarritzko laguntza moduak planteatzea, bertako errealtatean errazago txertatzeko eta bertako berezitasunak (hizkuntzarena batez ere) bere egiteko.

V.III.- Ondorio orokorrak

Gazteen nahia eta formazio eskaintzaren arteko diferentziak bi fenomeno garrantzitsu eragiten ditu : Bertan ikasteko hautua egiten duenak formakuntza mailan helburuak apaldu behar ditu eta apaltzen ez baditu emigratu egin behar du. Fenomeno honek ondorio sakonak ditu eta horrekin jabetzen dira gazteak, besteak beste, Iparraldeko jarduera profesionalen ezaugarriak apaltzen baititu (soldata apalagoak, kualifikazio txikiagoko lan eskaintzak...).

Mugaz gaindiko harremanak sakondu beharraz asko hitz egin arren, honen eragina ez da iritsi oinarritzko mailetara ere. Honek agerian uzten du proiektu politikoaren eta proiektu sozialaren arteko aldea zenbatekoa den oraindik ere. Mugikortasun geografikoari dagokionez oso urrun gaude Europak sustatu nahi duen joeratik. Egoera hau are larriagoa da informazio falta denean gazte guztiek aipatzen dutena. Nola joko dute Hegoaldera ikastera edo lan bila oinarritzko informazioa falta izateaz gain, aurreiritzi ugari baldin badago? Hein berean, Hegoaldera joandakoen esperientzia positiboa izan da, bide formala aurkitu dutelako egin dute aukera hori eta hori oso aintzat hartzekoa da, sakontzeko eredia izan daiteke.



VIII.- Eranskinak

1 Eranskina:

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako formazio eskaintza:

1.- Irakaskuntza orokorra eta teknologikoa eskaintzen duten lizeoak

Lizeoak	Kokapena	Titularitatea	Eskaintzen dituzten titulak
Cantau	Angelu	Publikoa	- STI baxoa : génie civil, arts appliqués... - S baxoa: option science de l'ingénieur
Sainte Anne	Angelu	Pribatua	SMS eta STL baxoa
Louis De Foix	Baiona	Publikoa	- S baxoa (aukerak: Sc. de la vie et de la terre / de l'ingénieur) - STI baxoa: génie électrotechnique / génie mécanique - STT baxoa: ACA/ACC/CG
Cassin	Baiona	Publikoa	-Irakaskuntza orokorra: L, S, ES baxoa
Largenté	Baiona	Pribatua	ES, S/STG baxoa
Etxepare	Baiona	Partaidetza soziala (Seaska)	Irakaskuntza orokorra
Saint Louis Villa Pia	Baiona	Pribatua	Irakaskuntza orokorra
André Malraux Lizeoa	Miarritze	Publikoa	Irakaskuntza orokorra opzio hautu aintzekin: hizkuntzak, SES, MPI, arte plastikoak, musika.
Ostalaritza eta turismo Lizeoa	Miarritze	Publikoa	Ostalaritzako batxilergo teknologikoarekiko prestakuntza
Pays de Soule-ko Lizeoa	Sohüta	Publikoa	-Irakaskuntza orokorra -STI génie Electronique / génie Mécanique baxoa
Saint François	Maule	Pribatua	Irakaskuntza orokorra
Saint Joseph	Hazparne	Pribatua	L, S / STG Baxoa
Armand David Lizeoa	Hazparne	Pribatua	Baxo Zientifiko eta Teknikoak: Aménagement, environnement, agronomie/Développement et animation des territoires
Saint Thomas	Donibane Lohitzune	Pribatua	Irakaskuntza orokorra, STG baxoa
Maurice Ravel	Donibane Lohitzune	Publikoa	Irakaskuntza orokorra
Navarre -eko Lizeoa	Donibane Garazi	Publikoa	- Irakaskuntza orokorra: L, ES, S baxoa -BEP : métiers de la restauration et de l'hôtellerie/Bois et matériaux associés/Electrotechnique -CAP : MITA/IEE/Café brasserie
Errecart Institutoa	Donapaleu	Pribatua	STAE baxo teknologikoa- Baxo Zientifikoa
Saint Joseph	Uztaritze	Pribatua	L, S, STT baxoa

Iturria:Chantier jeunes-Garapen Kontseilua. www.lurraldea.net. "La formation et l'insertion professionnelle des jeunes en Pays Basque" izeneko azterlana.

2.- Irakaskuntza profesionala eskaintzen duten lizeoak

Lizeoak	Kokapena	Titularitatea	Eskaintzen dituzten titulak
Cantau	Angelu	Publikoa	-Des formations en adéquation avec les métiers du BTP -BEP-CAP: Plâtrier, techniques du géomètre et de la topographie... -Baxo pro: structures métalliques, construction gros oeuvres... -BTS: bâtiment, travaux publics... -Lizentzia pro Bâtiment et construction
Louis De Foix	Baiona	Publikoa	-BEP: production mécanique informatisée/ bois et matériaux associés/Electrotechnique -Baxo pro productique bois -BTS: secteur industriel et tertiaire
Paul Bert	Baiona	Publikoa	Des formations en adéquation avec les métiers du tertiaire et des services (BEP/Bac pro)
Le Guichot Lizeoa	Baiona	Pribatua	-BEP: Métiers de la comptabilité/ Secrétariat/Bioservices/Métiers de l'Hygiène, de la propreté et de l'environnement -CAP: Assistant technique en Milieux Familial et Collectif/ Coiffure/ Esthétique -Baxo pro: Comptabilité/Secrétariat
Ostalaritza eta turismo Lizeoa	Miarritze	Publikoa	-CAP-BEP hôtellerie restauration (cuisine, services hôteliers) -Baxo pro restauration -BTS hôtellerie et tourisme -BTS responsable hébergement
Lycée Maritime	Ziburu	Publikoa	-CAP matelot -BEP exploitation du navire -BEP mécanicien -Bac pro mécanicien / conduite des navires
Jean Pierre Champo	Maule	Publikoa	-CAP: Mécanicien en matériels de parcs et jardins/ Mécanicien en tracteurs et matériels agricoles/ Conducteurs d'engins de travaux publics (apprentissage) -BEP: Matériels agricoles/ Agent de maintenance de travaux publics/ Maintenance de véhicules -Baxo pro: Maintenance des matériels agricoles/ Maintenance des matériels de travaux publics/ Maintenance automobile/ Maintenance en matériels de parcs et jardins
St Joseph Lizeoa	Hazparne	Pribatua	-CAP: Froid et Climatisation -BEP: Métiers de la Production Mécanique Informatisée/ Métiers de l'Electrotechnique/ Métiers de l'Electronique/Maintenance des Systèmes Mécaniques automatisés -Baxo pro: Maintenance des Equipements Industriels/ Etude et définition des Produits Industriels/ Electronique, Energie et Equipements communicants
Armand David Lizeoa	Hazparne	Pribatua	-BEP: Travaux paysagers/ Aménagements des espaces naturels/ Agroéquipements -Baxo pro: Travaux paysagers
St Joseph Lizeoa	Uztaritze	Pribatua	-BEP Carrières Sanitaires et Sociales/ Métiers de la Comptabilité/ Vente Action marchande -Baxo pro vente
Eskualdeko lizeo profesionala	Hendaia	Publikoa	-CAP: coiffure / Esthétique-Cosmétique-Vente/ Employé technique de collectivité -BEP Carrières sanitaires et Sociales
Ramiro Arrué	Donibane Lohitzune	Publikoa	-CAP: agent de maint. de mat. bureautique / Prêt-à-porter -BEP: métiers de la mode et ind. Con. / Logistique et comm. -Baxo pro: Artisanat et métiers d'Art / Exploitation des transports/ logistique / Micro-informatique et Réseaux
Navarre-ko Lizeoa	Donibane Garazi	Publikoa	-BEP: métiers de la restauration et de l'hôtellerie/ Bois et matériaux associés/ Electrotechnique -CAP: MITA/IEE/ Café brasserie
St Christophe Lizeoa	Senpere	Pribatua	-BEPA Productions aquacoles/ Aménagement des espaces naturels -Baxo pro Productions aquacoles
Ambroise Croizat	Tarboze	Publikoa	Maintenance des véhicules automobiles/ des Mécaniques automatisés/ Electrotechnique/ Electronique/ Chaudronnerie

Zuberoko Laborantza Lizeo Pribatua	Maule	Pribatua	-BEPA : Vente d'animaux de compagnie, de produits et accessoires d'animalerie / Services aux personnes/conduite de productions animales -Baxo pro : Conduite et gestion de l'exploitation agricole/ Technicien-conseil vente en animalerie
Jean Errecart Institutua	Donapaleu	Pribatua	-BEPA Conduite des Productions Agricoles/ Secrétariat Accueil -Baxo pro Conduite et Gestion des Exploitations Agricoles -Baxo pro Technicien Vente-Conseil qualité en Produits Alimentaires
Frantses Enia Laborantza Lizeo Pribatua	Donibane Garazi	Pribatua	-BEPA: Conduite de productions agricoles/ Services aux personnes -baxo pro: Conduite et gestion de l'exploitation agricole

Iturria: Chantier jeunes-Garapen Kontseilua. www.lurraldea.net. "La formation et l'insertion professionnelle des jeunes en Pays Basque" izeneko azterlana.

3.- Goi mailako teknikari sekzioen zerrenda

Cantau Lizeoa (Angelu) BTS publikoa	-BTS Etude et économie de la construction -BTS Fluides, énergies, environnement option génie frigorifique -BTS Bâtiment -BTS design d'espace -BTS Domotique -BTS Enveloppe du bâtiment: façades étanchéité -BTS Travaux publics
St Anne Lizeoa (Angelu) BTS pribatua kontratupean	-BTS Action Commerciale
Louis de Foix Lizeoa (Baiona) BTS publikoa	-BTS Assistant de direction -BTS Assistant de gestion de PME-MPI -BTS comptabilité et gestion des organisations -BTS Electrotechnique -BTS Management des unités commerciales -BTS Mécanique et automatismes industriels -BTS Productique mécanique
Ostalaritza eta turismo Lizeoa (Miarritze) BTS publikoa	-BTS Animation et gestion touristiques locales -BTS Hôtellerie restauration -BTS Responsable d'hébergement -BTS ventes et production touristiques
Largenté Lizeoa (Baiona) BTS pribatua hezkuntza nazionalarekin kontratupean	-BTS Comptabilité et gestion des organisations
René Cassin Lizeoa (Baiona) BTS publikoa	-BTS Métiers de l'audiovisuel
Pays deSoule -eko Lizeoa (Sohüta) BTS par alternance	-BTS Conception et Industrialisation en Microtechniques
Saint Joseph Lizeo Pribatua (Uztartitze) BTS publikoa kontratupean	-BTS Négociation et relation client
Jean Pierre Champo Lizeoa (Maule)	-BTS technico-commercial
CFA Agricole (Hazparne) Apprentissage	-BTSA analyses agricoles biologiques et biotechnologiques -BTSA industries Agri alimentaires -BTSA technico commercial -BTSA technologies végétale
Saint Joseph Lizeo pribatua Par alternance	-BTS Conception de Produits Industriels
St Christophe Lizeoa (Senpere) BTS pribatua kontratupean	-BTSA Productions aquacoles
Jean Errecart Institutua pribatua (Donapaleu) BTSA pribatua laborantza ministeritzarekin kontratupean	-BTSA industries agro alimentaires -BTSA Analyse et conduite de systèmes d'exploitation -BTSA Gestion et protection de la nature -BTSA technico-commercial
EPSECO (Baiona) BTS pribatua	-BTS Management des unités commerciales
Estetika eskola (Miarritze) BTS pribatua	-BTS esthétique cosmétique

Iturria: Chantier jeunes-Garapen Kontseilua. www.lurraldea.net. "La formation et l'insertion professionnelle des jeunes en Pays Basque" izeneko azterlana.

4.- Goi mailako ikasketen deskribapena:

Goi mailako formakuntzak		Eskaintzen dituzten titulak
U2 PP A	UFR Pluridisciplinaire	-Licence : Droit/Eco Gestion/Lettres -Licence pro adjoint de direction PME/PMI -Master affaires européennes et internationales Mention intégration européenne -Master Droit Mention Droit et protection des personnes -Master Lettres et sciences humaines Mention Langues et cultures régionales (Etudes basques) -DPECF/DECF
	UFR Sciences et Techniques	-Licence : Sciences physiques et chimiques/Sciences de la vie -Licence pro Management, reprise et création de PME BTP -IUP GSI Logistique, Activités Opérationnelles et systèmes d'information -Master Dynamique des éco, Aquatiques -Master ingénierie de projet (en collaboration avec ESTIA)
	Baionako IUT	-GEA/Tech de Co/Informatique -Licence pro : distribution et chaîne logistique Atlantique/Communication multimédia/ Développement et gestion des clientèles professionnelles -DU TIC
	ISA-BTP Institut Supérieur Aquitain du Bâtiment et des Travaux Publics (site de Montauray)	-Diplôme d'ingénieur des techniques de production du BTP
CPGE Classe Préparatoire aux Grandes Ecoles		-CPGE: physique chimie / économique et commerciale voie scientifique
STS Section de techniciensupérieure		-Les STS sont des filières sélectives implantées dans les lycées. Elles préparent en deux ans au BTS (cf. 4). Taula)
EGC Ecole de Gestion et de Commerce		-Diplôme Consulaire Supérieur de gestion et de Commerce préparé en 3 ans
IFSI Institut soins infirmiers		-Ecole d'infirmière en 3 ans
ESTIA Ecole Supérieure des Technologies Industrielles Avancées (Bidarte)		-Master Systèmes de Production Industriels Automatisés (SPIA) -Diplôme d'ingénieur de Technologies Industrielles Avancées -3ème cycle européen « Chef de projet et Consultant en organisation logistique et e-business
Université Bordeaux 2 (Bidart)		-Master ingénierie des sports de glisse

1 Jatorria: UPPAko formakuntzen gida 2006/2007

2 Paue eta Adour-reko Unibertsitatea

5.- "CFA" Formakuntza zentroak:

Formakuntza estrukturak	Kokapena	Doakion diploma
LPO du bâtiment (Cantau)	Angelu	BTS fluides énergies environnement, Option B : génie climatique
UPPA-UFR sciences côte basque	Angelu	Lizentzia pro. Bâtiment et construction, Option: management, reprise et création de PME
CFA CIFA(centre interprof. formation apprentis)-PME	Baiona	Baxo pro secrétariat BTS assistant de gestion PME-PMI
CFA de la chambre des métiers des Pyrénées Atlantiques antenne-Bayonne	Baiona	Niveau V : -Alimentation fabrication artisanale -Agro-alimentaire -Habillement -Mécanique spécialisée (voitures, motocycles) -Forge chaudronnerie carrosserie -Traitements de surface -Soins personnels Niveau IV : -Alimentation fabrication artisanale -Soins personnels
CFA de la communauté d'agglomération du BAB	Baiona	Niveau V : -Préparation culinaire -Vente -Vente produits alimentaires -Vente spécialisée -Hôtellerie-restauration Niveau IV : -Préparation culinaire -commerce vente distributionHôtellerie-restauration
UPPA-section apprentissage	Baiona	Pro adjoint de direction PME-PMI Lizentzia
CFA de la CCI de Bayonne (ESTIA/EGC)	Baiona	Niveau II : -Organisation-Gestion des échanges commerciaux-Gestion de magasin et d'entreprise commerciale Niveau I : -technologies industrielles fondamentales -Méthodes, organisation, gestion de production en construction et maintenance mécanique
CFA agricole des Pyrénées Atlantiques	Hazparne	Niveau V : -conduite-réglage-maintenance d'équipements de la ferme -Cultures spécialisées -Aménagement paysager Niveau IV : -Agriculture générale -Organisationresponsabilité des exploitations agricoles -Aménagement paysager -Méthodes, organisation, gestion de production dans les industries agroalimentaires Niveau III : -Agronomie-recherche agronomique, agrobiologie-biologie végétale -Laboratoire industrie de transformation et de process -agro alimentaire Technico commercial
LP Jean Pierre Champo	Maule	CAP conduite d'engins de travaux publics
CFA des métiers commerciaux et financiers	Uztartitze	-DUT techniques de commercialisation. -Lizentzia pro développement et gestion des clientèles professionnelles.

Iturria: Chantier jeunes-Garapen Kontseilua. www.lurraldea.net. "La formation et l'insertion professionnelle des jeunes en Pays Basque" izeneko azterlana.

2. Eranskina:

Inkesta kualitatiboan elkarriketatutako gazteen lagina

		Kopurua
19-29 urte arteko gazte elkarriketatuen kopurua		61
Sexua	Mutikoen kopurua	37
	Nesken kopurua	24
Estatutua	Ikasle	23
	Laborari	4
	Langile-Enplegatu	11
	Ofiziale, Saltzaile, Enpresaburu	3
	Kuadro, "PIS", "P.I."	9
	Langabetu	11
	Lapurdi	21
Oraingo bizilekua	Nafarroa Beherea	16
	Zuberoa	6
	Kanpoan	18
	Lapurdi, Nafarroa Beherea edo Zuberoa	40
Sortekua	Kanpoan	21


Talde elkarriketa bat egina izan da ere, Baionako "Mission Locale"an. Hango enplegatuaren laguntzarekin, Baiona inguruko gazte batzuk bildu dira gaiaren inguruan eztabaidatzeko, haien esperientzia eta iritziez mintzatzeko. Guztiak ez badira mintzatu ere, gazteentzat ez delako beti erraz talde baten aitzinen hitza hartzea, 6 gazte luzaz mintzatu dira. Orduan bilduak izan diren elementuek ere baliatuak izan dira inkestan.

Mugak: Inkestaren lagina oso konplexua denez, ez du baieztapen biribilak egiteko asmoa. Inkestak aztertu nahi duen populazioa inportantea denez, talde desberdin anitzez osatua, gazte talde bakoitzean elkarriketatuak gutxi dira.

Gazte multzo baten lekukotasunen gainean oinarrituz, sentsibilizazio pertsonal batzuen bidez, hiru herrialde horietan gazteek bizi duten errealitatearen ulertzeko argibide batzuk ematea da, inkesta horren helburua.

3. Eranskina:

Lapurdi, Nafarroa Behera eta Zuberoko gazte populazio banaketaren mapa:



Iturria: Euskal Herriko Garapen Kontseilua, "Chantier jeune, Pays Basque 2020" txostena. Txostenerako datuak INSEEtik hartu dira."

Mapek, hiru herrialdeetako kantonamendu desberdinetan diren 15-29 urte arteko gazte kopurua erakusten dute. Barnealdean gazte gutxi direla ikusten da. Hori dela eta, ikerketa eremua bi zonaldeetan banatzea hautatua izan da.

Alde batetik Nafarroa Beherea eta Zuberoa:

Nafarroa Beherean eta Zuberoan elkarriketatutako izan diren 18-29 urte arteko gazteak (33 elkarriketa):

	Bertan bizi (Nafarroa Beherean edo Zuberoan sortua)	Kanpoan bizi (Nafarroa Beherean edo Zuberoan sortua)		Kanpoan sortua (Naf. Beh. edo Zuberoan etorria)
		Frantzia	Hegoaldean	
Ikasle	3	4	2	3
Laborari	2			1
Langile- enplegatu	2	2		2
Ofiziale- saltzaile- enpresaburu	1			1
Koadro, "PIS", "PI"	1	2		1
Langabetu	2	1		3

Eta bestetik Lapurdi:

Lapurdi elkarriketatutako izan diren 18-29 urte arteko gazteak (28 elkarriketa):

	Bertan bizi (Lapurdi sortua)	Kanpoan bizi (Lapurdi sortua)		Kanpoan sortua (Lapurdi etorria)
		Frantzia	Hegoaldean	
Ikasle	3	4	2	2
Laborari	1			
Langile- enplegatu	3			2
Ofiziale- saltzaile- enpresaburu	1			
Koadro, "PIS", "PI"	1	1		3
Langabetu	2			3

Inkestan elgarritzketatu gazteak orotara: (61 elkarritzeta)

		Bizilekua			
		Lapurdi	Naf. Beh. Edo Zub.	Frantzia	Hegoaldea
Sorlekua	Estatutua				
Lapurdi, Nafarroa Beherea edo Zuberoa	Ikasle	3	3	8	4
	Laborari	1	2		
	Langile, Enplegatu	3	2	2	
	Ofiziale, Saltzaile, Enpresaburu	1	1		
	Koadro, "PIS", "PI"	1	1	3	
	Langabetu	2	2	1	
Kanpoan	Ikasle	2	3		
	Laborari		1		
	Langile, Enplegatu	2	2		
	Ofiziale, Saltzaile, Enpresaburu		1		
	Koadro, "PIS", "PI"	3	1		
	Langabetu	3	3		

4. Eranskina:

Inkestan elkarritzketatutako ikasleak (23 elkarritzeta)

	Bertan bizi (Nafarroa Beherean edo Zuberoan sortua)	Kanpoan bizi (Nafarroa Beherean edo Zuberoan sortua)		Kanpoan sortua (Nafarroa Beherean edo Zuberoan etorria)
		Frantzia	Hegoaldean	
Nafarroa Beherean edo Zuberoan	3	4	2	3
Lapurdi	3	4	2	2

Gutxi gora-behera kasu desberdinetatik ber kopurua elkarritzketatua izan bada, Frantziara ikastera joan direnekin elkarritzeta gehiago egitea hautatua izan da, joatekotan gehienak hara joaten direlako.

5. Eranskina:

	Nafarroa Beherea eta Zuberoan			Lapurdin		
	Bertan bizi (Lap., NB., Zub. sortua)	Fr.-n bizi (Lap., NB., Zub.n sortua)	Kanpoan sortua (Lap., NB., Z.ra etorria)	Bertan bizi (Lap., NB., Zub. sortua)	Fr.-n bizi (Lap., NB., Zub.n sortua)	Kanpoan sortua (Lap., NB., Z.- ra etorria)
Laborari	2		1	1		
Langile, enplegatu	2	2	2	3		2
Ofiziale, saltzaile, enpresab.	1		1	1		
Koadro, P. Int. Sup. eta Pl.	1	2	1	1	1	3

Kategoria sozio-profesional guztiak kontutan hartzeko 4 talde egin ditugu:

Laborari.

Langile, enplegatu.

Ofiziale, saltzaile, enpresaburu.

Koadro, "Profession intellectuelle supérieur" edo "Profession Intermédiaire".

Kategoria sozio-profesional bakoitzetik elkarriketatua izan den kopurua:

4 laborari: Hiru herrialdeko langileen kopuru orokorrean laborarien kopurua ttipia bada ere (%2,6), laborarier interesatzea merezi du barnealdeko ekonomian gaur egun garrantzi handia duelako.

11 langile, enplegatu: Hiru herrialdetan gazte kopuru gehiena sail horretako lanpostuetan enplegatua da (% 71,8), horregatik da kategoria horretakoa elkarriketatua kopuru handiena.

3 ofiziale, saltzaile, enpresaburu: Hiru herrialdetan gutxi badira ere (%3,8), errealitatea bere osotasunean hartzeko kontutan hartu behar dira, eta horien ibilbidea aztertzea merezi du.

9 Koadro, "PIS.", "PI": Hiru herrialdetan gutxi badira ere (%3,8), ikerketaren hipotesien aztertzeke, populazio horren mugimenduak aztertzeak interesgarri ikusi dugu.

6. Eranskina:

	Bertan bizi (Nafarroa Beherean edo Zuberoan sortua)	Frantzian bizi (Nafarroa Beherean edo Zuberoan sortua)	Kanpoan sortua (Lapurdi, Nafarroa Beherera edo Zuberora etorria)
Nafarroa Beherean edo Zuberoan	2	1	3
Lapurdin	2		3

Erabakia izan da kanpotar langabetuak gehiago elkarrizketatzea, zergatik jin diren eta zergatik hemen gelditzen diren ezagutzeko.

7. Eranskina:

Galdetegia:

1.- Datu pertsonalak:

- Adina:
- Sexua:
- Sorlekua:
- Bizilekua:
- Formakuntza:
- Oraingo egoera:
- Menperatzen dituen hizkuntzak.
- Gurasoen sorlekua:
- Gurasoen jatorri sozio profesionala:

2.- Ibilbidea:

- Non lan egiten duzu? Edo, non ikasten duzu?
- Sorterrian al zara? Zergatik?
- Zein da zure inguruko lagunen joera? Zergatik gertatzen da hori zure ustez?
- Diplomaren araberrako lana egiten al duzu? Zure lehen lana al da?
- Kanpoan bada: Nola atzeman duzu? Non bilatu duzu? eta saiatu al zara hemen bilatzen? Zer?
- Zertarako ikasketa edo lanbide hori? Zein da zure asmoa?

3.- Integrazio profesionala edo bere egoerari buruzko ikuspuntua:

- Zein iritzi duzu zure egoeraz? (Ikasketekiko, lan baldintzekiko, bizi baldintzekiko, etab).
- Lankideekiko harremana eta integrazioa nolakoak dituzu?
- Kanpoan ikasten edo lan egiten badu: Hautu bat izan al da? Han egoteko edo bizitzeko perspektiba al duzu? Egun batez itzultzea pentsatzen al duzu? Itzultzerakoan Hegoaldean lan egiteko prest izango al zinateke?
- Hemen ari bada: Kanpotik joateko asmorik ba al duzu?
- Lana hobetzeko kanpora joateko prest al zara?
- Kanpotik jin bada: Zertara jin zara? Zein izan dira motibazioak?

4.- Euskal Herriko lan munduaren eta garapen ekonomikoaren perzepzioa:

- Zer pentsatzen duzu Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako garapen ekonomikoaz?
- Zer pentsatzen duzu Hegoaldeko egoera ekonomikoaz?
- Zer pentsatzen duzu hemengo lan eskaintzaz?

- Nola atzematen dituzu hemengo lan merkatuan dituzun aukerak?
- Hegoaldean lan egiteko posibilitateetaz zer diozu?
- Asmatuko al zenuke Hegoaldean lan egiten?
- Zure ustez desberdintasunik ba al da?

5.- Ikasketei buruzko ikuspuntua:

- Zer dakizu eta zer pentsatzen duzu Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako formakuntza eskaintzari buruz?
- Zein dira eskaintzen diren formakuntzak?
- Zer dakizu eta zer pentsatzen duzu "Hegoaldeko" formakuntza eskaintzari buruz?
- Zer pentsatzen duzu kanporat ikasterat joateaz? Frantziarat joateaz, Hegoalderat joateaz?

6.- Lurraldeari buruzko iritzia:

- Zer pentsatzen duzu hemengo bizi-baldintzez: bizi-baldintzak, ingurumena, etab.?
- Zer pentsatzen duzu hemengo azpiegiturez: garraio-azpiegitura, etxebizitza, etab.?
- Zein harreman duzu hemengo kulturarekin?
- Zein atxikimendu duzu lurralde honekin?
- Lanak zure bizileku baldintzatzen ote du?
- Lana hobetzeko Frantziarat joateko prest ote zinateke?
- Lanetik kanpo muga pasatzen ote duzu? Zer egiteko?

7.- Langabetuentzat:

- Non bilatu duzu lana?

- Langabeziaren arrazoa zein da? formazioa, eskaintza desegokiak...
- Lana atzemateko bizilekua aldatzeko prest al zara? Frantziarat joateko prest al zara?
- Hegoalderat joateko prest al zara?
- Kanpotiarrak: nolaz etorri zara honat? Zein izan dira motibazioak?

8. Eranskina:

Datuen analisirako fitxa:

1.- Datu pertsonalak :

- Adina:
- Sexua:
- Sor lekua:
- Egoera pertsonala: (ezkondua, etab.)
- Bizilagunaren sorlekua:
- Bizilekua:
- Lortutako formakuntza maila:
- Oraingo egoera:
- Menperatzen dituen hizkuntzak.
- Gurasoen sorlekua:
- Gurasoen jatorri sozio profesionala:

2.- Ibilbidea:

- Ikasketak: Bai/ Ez.
- Non?
- Zein?
- Iritzia izandako aukerei buruz:
- Iritzia egin dituen ikasketei buruz.
- Besterik: *(Bakoitzaren sentsibiltatea edo esperientzia pertsonalaren bidez inportantzia zeri ematen dioten ikusteko).*

3.- Lan bila : Bai/ Ez.

- Nora jo?
- Zertan?
- Iritzia izandako aukerei buruz: *(aukera anitz, gutxi, hautu erraza, etab.)*
- Baldintzak:
- Besterik: *(Bakoitzaren sentsibiltatea edo esperientzia pertsonalaren bidez inportantzia zeri ematen dioten ikusteko).*

4.- Lana : Bai/ Ez.

- Zein?
- Non?
- Iritzia izandako aukerei buruz: *(anitz, gutxi, diplomaren arabera, etab.)*
- Iritzia bere esperientziari buruz: *(baldintzak, etab., zer moduz?)*

- Besterik: *(Bakoitzaren sentsibilitatea edo esperientzia pertsonalaren bidez inportantzia zeri ematen dioten ikusteko).*

5.- Asmoa eta iritzia:

- Perspektibak:
- Lurraldearekiko loturaren oinarria:
- Ikasketak:
- Lana:
- Ingurumen soziala: *(familia, lagunak, etab.)*
- Lurraldeari buruzko ikuspuntua: *(atxikimendua, mugikortasuna, etab.):*
- Bizi-baldintza orokorrak:

9. Eranskina:

Lanaren kalitatea:

Frederick Irving Herzberg (1923-2000) Estatu Batuetako psikologo oso ezaguna izan zen. Enpresen kudeaketan eragin handia izan zuen bere lanak. Bere emaitzen artean motibazio eta higienezaren teoria (1959) izenekoa ekarri nahi dugu ikerketa honetara. Teoria honen arabera, pertsonen jokamoldean bi faktore motak eragiten dute:

1.- Asetasunarekin lotutakoak, hauek motibazioaren ondorio dira. Faktore hauek norbanakoaren atsegin maila handitzen dute, baina ez dute atsegin eza apaltzeko eraginik ia.

2.- Asetasun ezari lotutakoak, hauek higiene faktoreen ondorio dira. Faktore hauek agertzen direnean atsegin eza eragiten dute, baina epe luzera eragin txikia dute sentitzen den atseginean.

Higiene faktoreak

Soldatak eta irabaziak

Enpresaren politika eta kudeaketa

Lankideekiko harremanak

Giro fisikoa

Gainbegiratzea, kontrola

Statusa

Ziurtasun laborala

Motibazio faktoreak

Lorpenak

Aitortza

Lan independentea

Ardura

Sustapena

Hazkundera

Higienearen dinamika

Bere teoriak satisfazioa eta motibazioa bereizten ditu. Satisfazioa lan baldintzetatik etortzen da, eta motibazioa lanarekiko sentitzen den interesetik etortzen da, eta ez zigor edota oparieretatik. Enplegatuen motibatze horien lan baldintzak hobetzea ez da aski, ez eta sanzio/opari sistema bat eraiki behar. Beren lana interesgarria bilakarazi behar da, egiazki aberastean. Honek erakusten digu, besteak beste, Iparraldeko gazteek higieneari lotutako baldintza egokiak nahi dituztela, baina motibazio faktoreak dituztela bilatzen, norbanakoaren hazkunde pertsonala eta ongizatea lortzeko balio dutenak.

Baiona-Donostia euskal euro hiria eta bere eragin-eremuko gazteen txertatzea Iparraldeko lan merkatuan. Formakuntza eta lan ibilbidea



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

Martin Ugalde Kultur Parkea à 20140 Andoain à www.gaindegia.org à Tel. +34 943 304 36

Diruz lagundua:



LEHENAKASITZA
PRESIDENCIA



AQUITAINE